

LEHEN KLAKETAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideetza, Gazteria
eta Kirol Departamentua




ETORKIZUNA
ORAIN



Kultura
eskola

IKERTZE



LEHEN
KLAKETAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideak, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



Kultura
eskola

IKERTZE

IKERTZE KULTUR ELKARTEA

Txalupagillene 2 behe

20008 Donostia

Tel.: 943 310 461

www.ikertze.org

Argitalpen hau egile-eskubideek babesten du.

Lege Gordailua: D-1405-2022

ISBN: 978-84-7907-848-5

Argazkiak: **LASZLO HACE, BLANCA ZARAGÜETA**


Testuak: **BLANCA ZARAGÜETA**

Itzulpena: **LEIRE URKIZU**

Diseinua eta maketazioa: **YTANTOS GRAFF**

Inprimaketa: **LEITZARAN GRAFIKAK**

Donostia, 2022



ZEINI ESKAINIA

Begirada berezia duten irakasleei, ikasleak
jakin-mina eta ezagutza landatzeko lur
emankor gisa ikusten dituztenei, eta
ikasgela bakarkako nahiz taldekako lana
sorkuntzarako zutabe gisa ikusten dutenei.

<i>Zinema Ikasgelan, 15 urte baino gehiagoko ibilbidea</i>	10	• Material elektrikoa	38
Sarrera	11	• Makinista eta garabi-arduraduna	38
Irakasleen esperientziak	12	• Sala efektuak	38
Lehen klaketak: ibilbidea	17	• Muntaia edo edizioa	39
Beharrezko oinarrizko material teknikoa	19	• Efektu bereziak eta efektu digitalak	39
10 aholku ezustekoak saihesteko	20	• Musika	40
		Klaketa	40
		Ariketa: "Itzal zuria"	41
01. SEK.			
IKUS ENTZUNEZKO LENGOAIA 1	22	04. SEK.	
Zer da ikus-entzunezko lengoaia?	22	IRUDI ETA SOINUEN MUNTAIA 2	42
Ariketa: "Alfabetoa"	23	Edizioaren ordena	43
		Ariketak	45
02. SEK.			
IRUDI ETA SOINUEN MUNTAIA 1	24	05. SEK.	
Zer da muntaia?	25	ZINEMAREN JATORRIA, IRUDIA MUGIMENDUAN	46
Muntaketa motak	25	Nola sortzen da irudia mugimenduan?	48
"Kuleshov efektua"	26	Ariketa: "24 eta 25 fotograma segundoko"	48
1. ariketa: Sortuko dugu Kuleshov efektu bat?	26	Zootropoa	49
2. ariketa: <i>Magia</i> film laburraren fotogramak	27	Zootropo bat egin	49
		Zootroporako pelikulak	52
		Zinemaren asmatzaileak	57
		• Skaladanowski anaien bioscopea	57
		• Lumière anaien zinematografoa	57
		• Alice Guy, edizioaren asmatzailea	57
		• Alice Guy zinegilearen biografia	58
		• Zinemaren historiaren lehen filmak: Lumière anaiak	59
		• Ariketa: Gure lehen filma egingo dugu: "Lumière minutua"	60
		• Errodatzen hasteko protokoloa	61
		• Alice Guy zuzendariaren lehen filma ikusiko dugu	62
		• Ariketa: Gure filma egingo dugu: "Alice Guy minutuak" grabatzen!	64
		Efektu bereziak	65
03. SEK.			
FILMAREN SAILAK	32		
Pertsona-taldea	33		
• Ekoizpena	33		
• Zuzendaritza	34		
• Argazkilaritza	35		
• Soinua	35		
• Artea / Dekorazioa	36		
• Makillajea eta ile-apainketa	36		
• Jantziak	37		

06. SEK.**IKUS ENTZUNEZKO LENGOAIA 2**

Planoak eta kameraren mugimenduak	66
Enkoadraketa	67
Elipsia, flashbacka eta raccorda	71
Ariketak: Grabatuko dugu	73
	74

07. SEK.**ZINE FORUMA 1**

Filmak ikusi eta horri buruz hitz egin:	76
<i>Globo gorria, Zurda zuria, Ogia eta kalea eta Hemen gerta daiteke</i>	77

08. SEK.**ARTISTA TALDEA**

Aktoreak	78
Ariketa	79
	79

09. SEK.**ZINE FORUMA 2**

Filmak ikusi eta horri buruz hitz egin:	80
<i>Lunch date, Lunch time eta 3 egun falta dira</i>	81

10. SEK.**GIDOI ZINEMATOGRAFIKOA**

Gidoi bat idazteko arauak	84
Gidoira iritsi arterainoko idazketa-faseak	85
Gidoi baten egitura	89
Eskaleta eta storyboarda	91
	92

11. SEK.**MATERIAL TEKNIKOA**

Kamera	94
Zeluloidezko pelikulatik memoria txarteletara	96
Soinua	98
Argiztapena	99
	100

12. SEK.**FILM LABURRA ERRODATU**

Aurreprodukzioa	104
Errodajea zehar	105
Planoa prestatu	105
Kontuan hartu beharrekoa	106
Errodatzeko protokoloa	107
	107

13. SEK.**POSTPRODUKZIOA**

Edizioa. Kreditu-tituluak. Musika	108
	109

Filmaren estreinaldia publikoaren aurrean	110
Zinegileen begirada	111
<i>Zinema Ikasgelan</i> programan egindako film laburrak	121
Filmografia	122
Bibliografia	124
Cecadi-ko ikasleek egindako tutorialak	124
Autoreari buruz	125
Eskerrik asko	126

ZINEMA IKASGELAN, 15 URTE BAINO GEHIAGOKO IBILBIDEA



15 urtetan, ikasgeletan, egindako zinemaren fruitua da. Denbora nahikoa da egiaztatu ahal izateko zinema egin daitekeela eskolan eta eskolatik kanpo, hori bai, ikastetxearen eta esperientzia honetarako eratzen den taldearen ezinbesteko lankidetzarekin. Era berean, egiaztatu dugu ikasketa-prozesu zuzena eta zeharkakoa benetakoa eta positiboa dela. Talde kohesioan lagungarri da; ikasleen alderdi eta gaitasun ezezagunak azaleratzen ditu, eta lankidetzaz giro paregabea sorrarazten du.


Zinema Ikasgelan programak honako hauen aldeko apustua egiten du:

- Egin aurretik, hausnartu.
- Saiakera-akatsa baliatu esperimentatzeko eta ikasteko.
- Esperimentazioan oinarritutako sorkuntza eta artea erabiltzea artea bera eta mundua ulertzeko.
- Emaizak globalizatzen dituen automatismoak saihestu nahi dira, eta material teknikoa hausnartuz eta lasai erabili. Ez dira gauzak berehala eta azkar egin nahi.

Garbi daukagu zinema hezkuntzarako tresna eta artea dela, arte- eta sorkuntza-esperientzia erabatekoa dela, eta jakin-min handiko ikasleen prestakuntzan laguntzen duela.

Aurrez aipaturiko guztiarengatik, ez dugu filma sortzeko automatizatuko aplikaziorik gomendatuko, nahiz eta jakin badakigu, baliagarri direla film sorkuntzaren prozesu guztia esperimentatu ostean.





LEHEN KLAKETAK

Zinema egiten eta ikusten ikasi nahi duten jakin-min handiko pertsonentzako gidaliburua.

Izan ere, zinema egitea POSIBLE DA Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzako gela batean, eskolaz kanpoko ekintza gisa, familian, norbere kabuz...

Lehen klaketak ekintza-plan bat da, **ibilbide bat**, ez bakarra, **film bat egiteko**, oinarrizko ikus-entzunezko lengoaia batekin, eta hori lortuko dugu teoriaren berri izanez, horretarako sortutako ariketak eginez eta, praktikaren bidez, asko grabatuz eta editatuz.

Ekoizpen baten alderdi tekniko eta humanoetarako **oinarrizko nozio** batzuen bidez (kamera-materiala, soinua eta argiztapena, taldearen funtzioak etab.), **jauzi egingo dugu film batzuk egiten hasteko**.

Liburu hau erabilgarria izatea nahi dugu: ken ditzala beldurrak eta eman dezala kamera hartu eta grabatzen hasteko beharrezko bultzada txiki hori.

Animatzen zarete? Goazen bada.



ELENA ZABALA

40 urte baino gehiagotan Lehen Hezkuntzako irakasle

2008ko iraila. Hastekotan zen ikasturte berrirako ikasleekin baloreen gaia lantzeko film interesgarri eta egokiak nola aukeratu pentsatzen ari nintzen, eta, orduan, Blanca Zaragüeta azaldu zen eskolan, proposamen handizaleago bat eskainiz. Zinema ikasgelan txertatu nahi zuen, baina modu zabalago eta zeharkakoago batean, zinema-eskola horiek gure zentroko programazioan sartu nahi zituen, eta bera, Ikertze taldearekin batera, gurekin lankidetzan aritu. Ideia zoragarria iruditu zitzaidan eta baiezkoa esan nion. Lehenik eta behin, eskolako zuzendaritza-taldeari baimena eskatu nion; ondoren, Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatu genion “Berrikuntza pedagogikoko egitasmoetarako”, eta ikasturte hasierako bileran gurasoei jakinarazi genien, eskola-ordutan egin beharreko jarduera baitzen. Hainbat hilabetez, asteen arratsalde bat egitasmoari eskaintzeko antolatu ginen. Hor sartzen ziren zinemaren historiaren ezagutza, filmak ikustea eta film labur bat egitea ikasle guztiek parte hartzeko moduan, film batek eskatzen dituen lan guztiak probatuz: aktore-lana, kamerari, soinu, klaketa, argazki finkoa... Film laburrak **Nire oroitzapena** zuen izena, eta horretarako ikasle bakoitzak beraien zortzi edo bederatzi urte luzetako bizitzako oroitzapen

bat bilatu behar zuen, eta kamerari kontatu atzealdean denen artean egindako forillo bat dekoratu gisa zutela. Eskola bakoitzaren amaieran ideiak konpartitzen ziren; egun horretan ikasitakoa adierazten zuten, nola sentitu ziren, eta film bakoitzak proposatzen zituen gaiak lantzen ziren. Bereziki balioa ematen zitzaion partaidetzari eta talde-lanari, ezinbestekoa baita zinema egiteko eta etorkizunerako prestatzeko.

Egitasmo horrek lau urte iraun zituen, eta eskola txiki bat izateak hori ahalbidetu zuen, izan ere, ikasturte bakoitzeko linea bakarra zuenez, nahikoa autonomia eskaintzen zidan egitasmoa aurrera eramateko abentura honetan parte hartu nahi ez zuten beste irakasleen eragozpenik gabe. Poztasun ugari ekarri zizkigun, niri, hezitzaile naizen heinean, baina baita haurrei ere, modu dibertigarriago eta parte-hartzaileago batean ikasten baitzuten. Orduan hainbeste aipatzen zen talde-lana praktikan jartzeko aukera bat izan zen, zinema horretarako adibide ezin hobea baita: lankidetzeta eta norberaren onena ematea beharrezko baita helburu komun bat eskuratzeko, alegia, denon artean film bat egiteko.

Lumière minutua ere errodatu genuen, historiako lehen filmari omenaldia eginez; minutu eskaseko

IRAKASLEEN ESPERIENTZIAK

iraupena zuen, izan ere, orduan asmatu berri zen zinematografoak gehienez debora hori eskaintzen baitzuen. Gure kasuan, haurrak eskolatik ateratzen ziren, fabrikatik beharrean, jatorrizko filmean bezala.

Ikasturte amaieran, elkarrekin ikusten genuen “gure pelikula”, eta gutako bakoitzak DVD bat jasotzen zuen, gure lanaren prozesu guztia iruditzen biltzen zuena. Festa handi bat izaten zen.

Hurrengo bi ikasturteetan, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailakoek lan berbera egin zuten, eta laugarren mailakoei, dagoeneko eginda zutenez lan hori, proposatu genien taldeka film laburrak egitea (bost guztira). Talde bakoitzak pelikula baten gidoia idatzi behar zuen eta, ondoren, prozesu guztia jarraitu: errodata, aktoreak, lokalizazioak, talde teknikoak, dekoratuak... Hori guztia beste DVD batean bildu eta oroigarri gisa eraman zuten. Film bakoitzaren iragarpen-kartela ere egin zuten, pelikularen izenburu eta partaideen izenekin.

Egitasmo honek iraun zituen lau urteetatik azkenengoa gure ikastetxearen ibilbidearen amaierarekin batera izan zen, inguruko beste bi eskolekin elkartu baikenen eta ikastetxe handi bat izatera pasa ginen. Lau edo bost lerro izango ginen ikasturte bakoitzeko, eta, beraz, proiektu hau ez

zen bideragarria izango. Hortaz, gure ikastetxearen historiari buruzko film dokumental bat egitea erabaki genuen. Horretarako, elkarriketak prestatu zituzten, taldeka, gure eskolari buruz zer esanik zuten pertsoneri egin ahal izateko: zuzendariari, irakasleei, ikasleei, ikasle-ohiei... Haiekin guztiekin harremanetan jarri behar izan ziren lankidetzan aritzeko eta errodate-datak eta -orduak adosteko. Gertakari eta aldaketak ikertu behar izan zituzten, eta ikasleek kameraren aurrean kontatu zituzten, bakoitzak bere lekutik, eskolako bizitzaren alderdiak eta eraldaketa urte haietan zehar. Oroigarri gisa DVD bat eskuratu genuen; dokumentala ikusi, eta azken eskola egunean denen artean ospatzeaz gain, eskola guztiak ikusi ahal izan zuen, baita agur festara etorritako gainerako pertsonen ere, eta harro sentitu ginen momentu hartan.

Garai hartan, nire liburu-saltzaileak Brian Selznick idazlearen **Hugo Cabreten asmakuntza** liburua erakutsi zidan, modu oso bisualean idatzita eta ilustratuta zegoen. Nik hura erosi eta ikasleek interes handiarekin irakurri zuten. Orduan jakin nuen prentsaren bidez, Martin Scorsese zinemagileak liburu horri buruzko film bat errodatu behar zuela, **Hugo** izenekoa. Ikasleei kontatu nien, eta poz handia hartu zuten albistearekin.

Hurrengo urtean, 2012an, 3D eran errodatutako filma dagoeneko zinematan zegoen, eta larunbat arratsalde batean denok elkarrekin Antiguoko zinemara joan ginen ikustera.

Lau urte haietan zehar, film oso interesgarri eta aproposak ikusi genituen “baloreak” lantzeko. Filmak ikusterako garaian, isiltasuna lantzen genuen eta, amaierako elkarriketan, ahozko adierazpena. Gainera, denek ordena jarraituz eta errespetuz parte hartzen zuten: hizketan eta iritzia ematen ari zen pertsona errespetatzen zuten. Denek iritzia ematen zuten honako hauei buruz: ikusitakoa, gustatutakoa, sentitutakoa, harriduraz jasotakoa, dibertigarri iruditutakoa nahiz ikasitakoa. Gogoan ditut ikasleen aurpegiak zenbait film ikustean, adibidez, Lumière anaien historiaren lehen filma, Georges Méliès-n **Ilargira bidaia** (1902), Charles Chaplinen zuri-beltzeko filmak eta beste hainbeste. Gogoan ditut zein momentu on ekarri zizkigun Albert Lamorisse zuzendariaren **Globo gorria** filmak (1956), **Nire oroitzapena** gure filmaren foroa egiteko oso baliagarri gertatu baitzitzaigun. Bestetik, oso gogoan daukat Víctor Fleming zuzendariaren **Kapitain ausartak** (1937) lana ikusi genueneko, nahiz eta zuri-beltzean izan eta oso zaharra, asko gustatu zitzaion eta aukera izan

genuen film horrek eskaintzen dituen hainbat gai garrantzitsuri buruz hitz egiteko.

“Zinema eskolak” ziren; ez genituen pelikulak denbora pasatzeko ikusten, hori etxean edo zineman egin baitzezaketan familia nahiz lagunekin. Nik film onek duten heziketarako gaitasun guztia aprobeztatu nahi nuen, eta baita film horiek egiteko behar den ezagutza teoriko eta praktikoa ere. Sormena lantzen genuen; erabakiak hartzeko garaian, adostasuna; helburu komun baterako lankidetzeta eta bakarkako ahalegina... Eta ulertzen zuten ongi egindako lana ere dibertigarria izan zitekeela. Horrelaxe transmititu nahi izan nien. Nire ikasleek ulertu zuten; praktikan jarri zuten, eta asko gozatu zuten. Eta baita nik ere.



Eskaneatu film laburrak ikusteko:

- Kobazulo
- Lapurreta gazteluan
- Aitona-amona zaratsatuak
- Zomba
- Gaztelu sorgindu





ALICIA DIAZ DE APRAIZ

30 urte irakaskuntzan. Psikologoa. Pedagogia Terapeutikoko irakaslea

Urte hauetan zehar, ikasleei laguntzeko hainbat forma bilatu ditut: lan-metodologia bestelakoak ikasle aniztasunari erantzuteko eta ikasle bakoitzarengana iritsi eta ikaskideekin batera ikasgela barruan ikasi ahal izateko, tokiz kanpo sentitu gabe.

Errealitatea norbaitek esandako hau da:

“Ikasle guztiei tratu bera eskaintzen dien hezkuntza da hezkuntzarik bidegabeena”.

Bide horretan, duela urte batzuk gurutzatu nintzen, edo, hobeki esanda, berriro ere elkartu nintzen Blancarekin.

Goxotasun handiz gogoratzen nituen gure seme-alabekin eta eskolako beste kide batzuekin Blancak antolatzen zituen igandetako zinema-arratsalde haiek.

Blanca, artean, egitasmo handizaleago batean zegoen, Ikertze elkartearen barruan, zinemaren erabilera pedagogikoa sustatzeko proiektu batean. Eskoletan “zinema-arratsaldeak” antolatu nahi zituen, ikasleen jakin-mina piztu, zazpigarren artearen sekretuak helarazi, baloreak transmititu, filmak ikusi, baina, batez ere, istorioak kontatzen irakatsi.

Horrekin guztiarekin eta munduko ilusio guztiarekin, martxan jarri ginen. Blancak zinema ikasgela lantzeko egitasmoa zuen, eta nik nirea, hau da, eskola inklusiboaren testuinguruan metodologia berriekin konpetentziak lantzen saiatzea.

Zuzendaritza-taldearen babesarekin, zinema-tailerra martxan jartzea erabaki genuen, hurrengo ikasturtean, 2. DBHko bi talde oso berezirekin.

Behar berezietako hainbat ikasle zeuden eta bai ala bai talde horietan bizikidetza landu beharra zegoen.

Hurrengo urterako, curriculum arruntean zinema-proiektua sartzeari erabaki genuen.

- Asteaz bi ordu segidan talde bakoitzarekin.
- Euskararen esparruan sartu genuen.
- Lanerako metodologia gisa **lankidetza-lana**. Etengabe elkarrekintzan dagoen talde txiki bat, bata besteari laguntzen.
- Bi irakaslek lan egin genuen ikasgela, beste irakasle espezialista baten laguntzarekin.
- Ikertze elkartearen aholkularitza, laguntza eta ikuskaritza genuen.

Honako hauek ziren gure **helburuak**:

- Euskararen erabilera, ahozkoa nahiz idatzia, ikasleen artean sustatzea.
- Ikasgelako kohesioa eta bizikidetza lantzea, bakarkako lana, talde txikikoa nahiz talde handikoa tartekatuz.
- Ikuspegi inklusibotik lan egitea, ikasle guztiek jardueretan parte hartzea ahalbidetuz.
- Zinema eta haren lengoaiari buruz asko ikastea, eta, noski, teknologia berrien erabilera sustatzea.

Biziki sinesten genuen lan egiteko modu berri honek lagun zezakeela talde barneko giroa hobetzen, kohesioa indartzen eta, gainera, euskararen eta zinemari buruzko ezagutzen maila hobetzen.

Hiru urte horietan zehar, zinema-tailerrak ez dakit helburu guzti horiek bete ote zituen, baina batzuk bai behintzat.

Bidea zaila izan da. Egia esan, askoz ere errazagoa da eskola tradizional bat ematea, hemen interakzioa handia baitzen: hitz egin, entzun, sortu, pentsatu, erabaki, banatu, entseatu, errepikatu, errepikatu... nolabait konpondu beharreko gatazkak sortzen ziren.

Nire ustez, merezi izan du. Gainera, ikasleek asko ikasi dute honako hauei buruz: bizikidetzaz, errespetua, pazientzia, sorkuntza, jendaurrean hitz egitea, interpretatzea, IKTen maneia... eta zinemari buruz, noski.

Zinemak, barrutik, mundu ezezagun baterako ateak irekitzen dizkie.

Kamerak beraien eskuetan jarri eta ikasi genuen zurien balantzeak egiten, enfokatzen, desenfokatzen, sekuentzia-planoak egiten...

Kaskoak, mikrofonoak, grabagailuak, kamerak eta klaketak erabiltzen zituzten. Edizio programak erabiltzen ere ikasi zuten.

Ikasturte hasieran, gure Lumière minutua egin genuen eta ikasturte amaierarako taldeka hainbat film labur sortu eta gauzatu genituen.

Hiru urte hauetan, taldeetan askotariko pertsonak izan ditugu: autismoa zuten ikasleak, harrera-pisuetan bizi zirenak, desgaitasun intelektualak zituztenak, gaitasun handiko ikasleak, TDAH duten ikasleak, familia egoera oso konplexuak zituzten ikasleak eta depresioa bezalako nahasmenduak zituzten pertsonak.

Eta horiek guztiek gauzak ikasi dituzte, **lan** egin eta, batik bat, tailerrari **ekarpenak** egin dizkiete.

Lantegietan parte hartu duten ikasleei galdetzean, askotarikoak dira erantzunak:

- Inoiz ez nuen pentsatuko zenbaterainoko lana dagoen zinemaren atzean...
- Zaila da talde handian lan egitea eta ados jartzea.
- Oso ongi dago, gauza desberdinak egiten dituzu eta asko ikasten duzu: beste pertsona batzuekin lan egiten...
- Esperientzia interesgarria eta dibertigarria izan da.
- Bajoi momentuak zeuden, kosta egiten zitzaigun ados jartzea...
- Hasieran kriston lioa zen...
- Gure gelan egon arren erlazioz ez genuen jendea ezagutzeko aukera izan dugu.
- Batzuk onak ginen gauza batzuk egiten, eta beste batzuk, beste gauza batzuk egiten... mundu guztiak nolabait parte har zezakeen...
- Zirrargarria da zure filma zinema-pantaila batean ikustea!!

Zinema egitea ez zen, gure kasuan, azken helburua. Tresna bat zen, ikasgelako kompetentziak beste modu batera lantzeko, bitarteko bat ikasleengana iritsi eta gizakiaren inteligentzia guztiak martxan jartzeko, baina, batik bat, inteligentzia emozionala lantzeko... Azken batean, zinemaren helburua hunkitzea da.





IÑAKI LEUNDA

San Jose ikastetxeko zuzendaria

Duela urte batzuk jaso genuen zinema ikasgelan lantzeko Ikertze kultur elkartearen proposamena. Orduan, eskolan hausnarketa-prozesu batean geunden: metodologia berritzaileak ezarri nahi genituen gure ikasleen behar bereziei hobeto erantzuteko.

Gure eskolan ikasle asko immigranteak dira, baliabide ekonomiko eskasekoak eta familia egoera konplexuak dituzte, kasu askotan. Horregatik, eskolan eta ikasgelan gauzak egiteko beste modu batzuk bilatzen ari ginen, XXI. mendeko gizartearen behar eta eskaerei hobeki erantzuten zieten metodologiak. Horiek lagunduko ziguten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobetzen, baina, batik bat, eskolan egoteko nahiz bizikidetzarako modu berriak bilatzen. Azken batean, Ikastetxeko pertsona bakoitza seguru eta zorientsu sentitu zedin nahi genuen, eskolan eta bere bizikidetzat-taldean, eta bere potentzialtasuna, alegia, konpetentzia guztiak guztiz garatzea.

Testuinguru horretan, Ikertzeren eskaintzak oso harrera ona izan zuen irakasleen artean, eta, ondoren, ikasleen artean. Ikuspegi berri bat zen, aurretik ere lantzen ziren eduki akademikoak ikasteko modu berri bat, eta, gainera, oinarritzko konpetentziei lotutako beste alderdi batzuk lantzeko eta horietan fokua jartzeko aukera eskaintzen zigun, behar bada, aurretik ez baitziren hain modu esplizituan lantzen: taldean lan egiteko gaitasuna, arazoan konponbidea, lidergoa, hezkuntza emozionala eta gaitasun sozialak, denboren eta proiektuen kudeaketa, norbere gain hartzea taldeko rolak... Eta hori guztia lortzeko zinema aitzakia bat izan zen, baina baita hainbat esperientzia eta ikasketen lotura integratzailea ere, eta ikasleek zein irakasleek beti baloratu dute positiboki. Horrek gure ikasleen inteligentzia anitzak garatzeko testuingurua eskaini digu, eta guztiz motibagarria izan da haientzat.

Lehenengo esperientziaren ostean, positiboki balioetsi ostean, esperientziari jarraipena nola eman eta, batez ere, gure eguneroko bizitzan nola integratu pentsatzeko momentua iritsi zen. Ordurako, ikastetxean apustu garbi bat egina genuen Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntzaren alde: horixe zen gure hezkuntza-praktiken metodologia-ardatza. Hortaz, zinema tresna gisa erabiltzen zuen egitasmo bat diseinatzen hasi ginen, baina, horretaz gain, hainbat sailletako ikaskuntza eta curriculum-edukiak modu esplizituan jaso behar zituen, baina baita zeharkako konpetentziak ere, aurreko paragrafo batean biltzen zen bezala eta Lehen Hezkuntzako curriculumak jasotzen duen bezala.

LEHEN KLAKETAK

Orrialde hau irakurtzen ari bazara, izango da lehen urratsa eman duzulako: zinema egin nahi duzu.

Orain zeure buruari galdetuko diozu: egin ahal izango dut?

BAI. Ongi etorri jakin-min handiko pertsona arduratsu hori!

Liburu hau asmo jakin batekin sortu zen: jakituria sintetizatu eta esperimentaziori leiho berri bat irekitzeko.

Egingo dugun urrats bakoitzeko, teoria ikasiko dugu, pausoz pauso ikasteko ariketa praktikoekin, eta material teknikoa eta ikus-entzunezko kontakizuna erabiliz finkatuko ditugu pausoak.



Aholkua

Egindako akatsak
ikaskuntzaren
funtsezko alderdi
gisa hartuko
ditugu

IBILBIDEA

13 sekuentziek gidatuko gaituzte, pausoz pauso, gure filma osatu arte:

- 01. SEK. Ikus-entzunezko lengoaia 1
- 02. SEK. Irudi eta soinuen muntaia 1
- 03. SEK. Filmaren sailak
- 04. SEK. Irudi eta soinuen muntaia 2
- 05. SEK. Zinemaren jatorria, irudia mugimenduan

- 06. SEK. Ikus-entzunezko lengoaia 2
- 07. SEK. Zineforuma 1
- 08. SEK. Artista-taldea
- 09. SEK. Zineforuma 2
- 10. SEK. Gidoi zinematografikoa

- 11. SEK. Material teknikoa
- 12. SEK. Film laburra errodatu
- 13. SEK. Postprodukzioa

Magia film laburrak, besteak beste, liburu hau irudiz hornituko du eta hainbat ariketa praktiko egiteko balioko digu.



Fitxa tekniko

Ekoizpena	Ikertze Kultura Eskola
Zuzendaritza	Blanca Zaragüeta
Neskatoak	Ashley García Talabera Zaira Adum Thomson
Dendaren jabea	Javier Jorge Veja
Irakaslea	Iñaki Leunda
Txakurtxoak	Luna
Gidoia	Blanca Zaragüeta Raquel Romero
Argazkilaritza eta kamera	Laszlo hace
Ekoizpena	Enara Martínez
Kamera laguntzailea	Unai Lizarza
Edizioa	Ander Korkostegi Blanca Zaragüeta
Dekorazioa	Lurdes González
Jatorrizko musika	Iñaki Salvador
Ekoizpen-urtea	2022

Sinopsia

Seigarren mailako bi ikaslek magiari buruzko lan bat egin behar dute. Antigoaleko gauzen denda bateko jabeari esker, garai bateko argazkilaritza eta zinema deskubrituko dute.



Magia
Vimeon
dago
ikusgai



Gidoi literarioa, film laburraren fotogramak (edizioa paperaren gainean praktikatzeko) eta film laburraren eszenen bideo-klipak (edizio-programekin ordenagailuan editatu ahal izateko) deskargatu ahal izango dituzue.



BEHARREZKO OINARRIZKO MATERIAL TEKNIKOA



Bideo-kamera
Memoria-txartela
Monitorea
Tripodea
Objektiboa garbitzeko zapia



Mikrofonoa
Pertika - Tripodea
Aurikularrak



Edizio-
programa duen
ordenagailua




Klaketa



Hainbat intentsitate
eta tonalitate dituen
argi-foku bat



Islatzaile zuria
eta zilarrezkoa
edo urrezkoa



Aurreko elementu horietakoren bat EDUKIKO EZ BAGENU:

- Kamera gisa sakelako bat erabil daiteke, tripode baten gainean horizontalki jarrita.
- Mikrofonoa beste sakelako bat izan daiteke, pertika* batean jarrita, ahalik eta gehien aktoreei hurbildu ahal izateko. Modu horretan, 2 audio edukiko ditugu, orokorrago bat irudia grabatzen duena eta beste bat hurbilagokoa, elkarrizketak grabatzeko.
- Sakelako telefonoarekin grabatutako irudiak ordenagailu batera deskargatu beharko dira, eta ondoren edizio-programa batekin editatu.
- Hainbat sakelako telefono edo etxeko lanparek argizta dezakete leku ilun bat.

* Erratz-makil bat erabil dezakegu pertika-lanak egiteko.



Aholkuak

10 AHOLKU EZUSTEKOAK SAIHESTEKO

1

Beti izan daitezela pertsona bat edo bi kamera-ekipoa zaintzearen arduradun eta beste bi, soinu-ekipoa zaintzearen arduradun.



2

Esku garbiak ekipo teknikoa erabiltzeko.



3

Egiaztatu kameraren objektiboa beti garbia dagoela. Kamera objektibotik gertu hitz egitearen txantxa saihestu, ez zikintzeko hatsaren lurrunarekin eta listuarekin.

4

Arnasa kameraren objektibotik metro bateko distantziara hartu, lurruna sor ez dakion.



5

Kamera tripode baten gainean jarri eta nibelatu, irudia okertuta atera ez dadin.



6

Zurien balantzea barrualdean nahiz kanpoaldean egin.



Consejos

7

Kamera mugitzen dugun bakoitzean, bi eskuekin ongi heldu, ez kolpatzeko, nahiz eta tripodearen gainean egon.

8

Mikrofonoa asko zainduko dugu. Zorrotik atera eta zuzenean pertikan jarriko dugu, erabili behar dugun bakoitzean.




9

Grabazioa prestatzen ari garenean, **ez da garrasirik egingo, ez da altu hitz egingo mikrofonoaren ondoan** (kaskoak jarrita dituen pertsonaren tinpanoa mindu daiteke).

10


Grabatutako irudien bi segurtasun-kopia egin.

Hasi egingo gara!



IBILBIDEAREN HASIERA

01. SEK.



IKUS ENTZUNEZKO LENGOAIA 1

Ikus-entzunezko lengoaia istorioak kontatzeko modu bat da, eta bere gramatika du, alegia, bere arauak ditu. Hortaz, mentalitate aldaketa bat egin behar dugu eta kontuan izan paperean idazten duguna irudi bidez kontatzeko izan behar dela: **“argazki bidez atera daitekeena idazten dugu”** esaten dute gidoilariak.




Aldaketa hori praktikatzen hasteko, ariketa edo jolas moduko bat proposatzen dizuegu: **“Alfabetoa”**. Garuna trebatuko dugu irudi bidez kontatzen hasteko:

Nola kontatuko genuke irudi baten bidez, adibidez:




Orain zuei dagokizue nahi dituzuen hitzei irudia jartzea. Aurrera!




Mugitzen diren errezel edo kortinak

Zuhaitz-adarrak mugimenduan




Orga-ilarak

Pertsonak erosketa-poltsekin



Momenturen batean hor armairu bat egon zela adierazten duen hormako marka bat

Gela batean (armairu gabe), arropa asko ohe gainean



Luma bat balkoiko lurrean

Kaiola huts bat atea irekita

02. SEK.

IRUDI ETA SOINUEN MUNTAIA 1

Pelikularen azken fasea ulertzen hasiko gara.

Edizioaren edo muntaiaren zentzua ulertzen badugu, gure filma errodatu edo grabatuko** ahal izango dugu hobeto jakinda zer nahi dugun eta, batik bat, zer behar dugun. (Toma faltsuak, gero eta gutxiago, hobe).





MUNTAKETA MOTAK

• Muntaia* da amaieran filmari zentzua ematen diona.

Muntaian hartzen dute zentzu narratiboa hainbat eszena eta sekuentziatan grabatutako irudiek.

Aurretik grabatutako material batetik abiatzen garen arren, zinemaren muntaia bere berezko autonomia eta adierazkortasuna du. Muntaia txar batek izorra dezake zuzendaritza- eta interpretazio-lan on bat.

• Alfred Hitchcock zinema-zuzendariak azaltzen du zer den muntaketa:



Bideoak **Psicosis** filmaren irudiak ditu eta bortitzak gerta daitezke.



* Edizioa eta muntaia gauza bera da. "Edizio" terminoa bideoaz mintzo garenean erabiltzen da, eta "muntaia", aldiz, zinemaz ari garenean.

** Errodatzea eta grabatzea ere gauza bera da. "Errodatu" hitza zineman erabiltzen da, eta, "grabatu", berriz, bideoan.

• MUNTAKETA LINEALA

Eszenak ordena kronologikoan muntatzen dira.

• MUNTAKETA ALTERNOA

Ekintzak aldi berean hainbat eszenatan gertatzen dira, eta, normalean, bi eszenak pertsonaiekin elkartzen dira toki berean.



Horren adibide da Christopher Nolan zuzendariaren **Jatorria** (2010) filma.

• MUNTAKETA PARALELOA

Muntaketa alternoaren antzekoa, baina hemen eszenak ez dira derrigorrez momentu berean gertatzen. Ez dira garai berekoak, baina aldizkatuta erakusten dira, ikusleak horien arteko ideiak erlazioa ditzan.



Txandakatutako eszena horiek ideia-erlazioak adierazi nahi dituzte: kausa-ondorio erlazio bat, lotura bat espazio batean edo misterio bat argitzeko bidea. Baliabide hori asko erabiltzen da telebistan edo polizia-filmetan, hilketa bat argitzeko garaian.

• MUNTAKETA ALDERANTZIKATUA

Kontakizunaren koherentzia kronologikoa hausten denean gertatzen da, eta *Flashback* edo *Flashforward* delakoak gertatzen dira.




Adibidez, Christopher Nolan zuzendariaren **Memento** (2000) filmean.

"KULESHOV EFEKTUA"

Kuleshov muntatzaile errusiarrak, 1922an, esperimentu bat egin zuen, **aktore baten lehen plano neutral bat** jarri zuen, eta beste pelikula batzuen zatiekin batera muntatu. Esperimentu horretan hiru konbinazio atara ziren:

- Aktorea zopaz beteriko plater baten aurrean = gosea.
- Aktorearen plano berbera haur baten hilkutxaren aurrean = tristura.
- Berriro ere plano berbera emakume pentsakor baten aurrean = errukia.

Alfred Hitchcock zinemagileak Kuleshov efektuari buruz emandako azalpena ikusi




►► 1. ariketa

Sortuko dugu Kuleshov efektu bat?

Aurreko adibidean ikusi bezala, argazkiak egingo ditugu, eta editatuko ditugu azaldutako efektua sortzen digun egiaztatzeko. Adibidez:


Aurpegi neutroa	+	Zopa beroa	+	Aurpegi neutroa	=	Gosea
Aurpegi neutroa	+	Haurra hilkutxan	+	Aurpegi neutroa	=	Tristura
Aurpegi neutroa	+	Pertsona bat diban batean eserita	+	Aurpegi neutroa	=	...



►► 2. ariketa



1. Film laburraren fotogramak fotokopiatu, moztu eta iruditzen zaigun ordenan jarriko ditugu.
2. Paperaren gainean editatuko dugu.
3. Ziurrenik hainbat bertsio aterako dira.
4. Ikus ditzagun eta horiei buruz hitz egin.



Irakaslea arbelean idazten




Irakaslea arbela seinalatzen



Irakasleak idazteari uzten dio



Ikasleak irakasleari begira



Ikasleak irakasleari begira 2




Totó eta Kai ikasgelan



Totó eta Kai hizketan



Totó eta Kai irribarrez ikasgelan



Irudi beltza filma laburraren izenburua jartzeko



Kai Totóri hizketan




Totó Kairi begira



Kai Totóri begira



Totó Kairi hizketan



Kai pentsakor






Kai eta Totó eskailerak jaisten



Kai eta Totó eskailerak jaisten 2



Patiara irteten



Patiara irteten 2




Kai eta Totó patiara irteten dira



Kai eta Totó patiara irteten dira 2



Kai eta Totó pasealekutik



Kai eta Totó kaletik




Kai eta Totó kaletik 2



Kai eta Totó kaletik 3



Kai eta Totó kaletik bokata jaten




Kai eta Totó erakusleihoan




Totók Kairi eskatzen dio desio bat pentsatzeko



Kaiek desio bat pentsatzen du




Totó linterna magikoarekin!




Kaik Totóri esaten dio desio bat eskatzeko




Totók desio bat pentsatzen du



Kai linterna magikoarekin!




Kai eta Totó dendara iristen dira



Kai eta Totó erakusleihoari begira



Kai eta Totóren ikuspuntua



Kai eta Totó erakusleihoan




Neskatoen ikuspuntua, dendako jabea ikusten dugu




Jabea agur egiten



Jabea sar daitezen keinuak egiten



Neskatoek agur egiten dute sartu gabe



Super 8 zinema-proiektorearen planoak



Plano orokorra neskatoak, jabea eta proiektorea



Jaimito txinatarren artean filma




Totóren lehen planoak



Kairen gertu-gertuko planoak



Dendako jabearen lehen planoak



Txakurtxoaren lehen planoa



Totóren lehen planoa



Dendaren jabearen eta txakurtxoaren erdi mailako planoa



Jaimito txinatarren artean filma




Kai eta Totóren erdi mailako planoa




Jaimito txinatarren artean filmaren amaiera




Kai, Totó eta jabearen plano orokorra



Kai eta kameraren lehen planoa




Plano orokorra azalpenak ematen



Xehetasun planoa pelikula sartzen




Hiruren plano orokorra




Plano orokorra azalpenak ematen




Plano orokorra azalpena




Kai entzuten lehen planoa




Kai irribarrez




Plano orokorra argazkiekin




Erdi mailako planoa negatiboekin



Lehen planoa negatiboa erakusten




Jabeak Totóri negatiboa ematen dio




Jabeak Kairi negatiboa ematen dio




Totó negatiboa begiratzeko



Erdi mailako planoa neskatok burumakur



Jabeak negatiboa hartzen du




Negatiboa eskanerraren gainean planoa




Jabea eskanerra ixten




Eskanerraren tapa itxita




Totó eta Kairi lehen planoa



Negatiboa kristalean lehen planoa



Totó eta Kai ordenagailuari begira planoa




Kai eta Totó irribarrez erdi mailako planoa



Argazkiaren positiboa



Kreditu-tituluak





03. SEK.

FILMAREN SAILAK

Film bateko taldea eta teknikari bakoitzaren funtzioak.



TALDE TEKNIKOA

Zuzendariak nahi duen filma lortzeko sail bakoitzean lan egiten duten pertsonak dira. Film bateko lan-taldearen inplikazioa oso garrantzitsua da lan on koordinatu bat egin ahal izateko eta emaitza ona lortzeko.

Pertsona kopurua alda daiteke ekoizpenaren tamainaren arabera.

EKOIZPEN A

★ Ekoizlea

Filma egiteko dirua eskuratzen du eta filmaren jabea da.

★ Ekoizpen zuzendaritza

Aurrekontua egin eta sailetan banatzen du dirua.
Talde teknikoa aukeratzen, antolatzen eta kontratatzen du.
Talde teknikoaren eta aktoreen kontratuak negoziatzen ditu.

★ Ekoizpen laguntzailea

Zuzendariarekin batera errodatzeko lokalizazioak bilatzen ditu, eta errodaiearen logistika antolatzen du.

★ Ekoizpen mandataria

Ekoizpen-laguntzailearen agindutara dago.



ZUZENDARITZA

★ Zuzendaria

Pelikula buruan du eta badaki nola errodatu nahi duen, zer plano egin, argiztapen-mota, dekorazioa etab.

Zuzendariak zer film egin nahi duen azalduko die sail bakoitzeko buruei elkarrekin egiten dituzten gidoi-irakurketetan. Modu berean, azalduko die zer lokalizazio mota, zer dekoratu eta abar nahi dituen. Berak aukeratzen du artista-taldea eta berak zuzentzen ditu.

★ Zuzendariaren lehen laguntzailea

Errodaje plan orokorra egiten du, eta egun bakoitzeko errodajea antolatzen du. Errodajeko erreferentziazko pertsona da. Talde teknikoa eta artistikoa antolatzen du errodatu behar diren eszena eta plano kopuruaren arabera. Produkzioaren tamainaren arabera laguntzaile bat baino gehiago egon daiteke.

★ Script edo errodaje-idazkaria

Errodatzeko denaren kontrola daraman pertsona da: eszenen raccord edo jarraitutasuna, jantziak, dekorazioa bere esku daude. Elkarriketen kontrola darama. Plano bakoitza kronometratzen du. Egunero partea pasatzen die ekoizpen, kamera eta muntaketakoei.

Beti zuzendariaren eta kameraren ondoan dagoen ekipoko pertsona da. Errodaje gertatzen den guztia kontrolatzen du: grabatzen diren planoak, atrezzoak, dekoratua, jantziak, makillajea, ile-orrakak eta beste hainbat kontu, jarraitutasun edo raccord akatsik egon ez dadin.

Bere lan-tresnak dira argazki-kamera, kronometroa eta desglose-oriak, pertsonaien arabekoak (jantziak, makillajea eta ile-orrakak) eta lokalizazioen arabekoak. Errodatatukoaren iraupena eta hortik zenbat den baliagarria kontrolatzen du pertsona horrek. Gehien zuzendariari galdetzen zaio, baina hortaz aparte, pertsona honi galdetzen zaizkio gauza gehien.

★ Zuzendaritza mandataria

Zuzendaritza laguntzailearen agindutara dago.



Desglose-oriak





ARGAZKIA

★ Argazkilaritza-zuzendaria

Filmak zer argi mota izango duen erabakitzen du.

★ Kameraria

Kamera maneiatzen duen pertsona da.

Berak esaten du non jarri behar den kamera, zuzendariak errodatu nahi duen planoaren arabera.

★ Fokista

Fokua kontrolatzen du, irudia garbia izan dadin eta desenfokea saihesteko.

★ Kamera mandataria

Kamera-materiala zaintzeaz, baterien kargaz eta garbiketaz arduratzen da. Beti grabatzeko prest edukiko du kamera.

★ Bideo laguntzailea

Monitorearen kontrola daraman pertsona da. Modu horretan, zuzendaritzak ikus dezake zer errodatu den. Grabatutako irudien segurtasun kopiak egiten ditu.



S O I N U A

★ Soinuaren arduraduna

Soinua paregabea izateaz eta elkarriketak ulertzeaz arduratzen da, eta baita ikusten eta entzuten dugun horrek koherentzia izateaz ere.

★ Mikrofono-arduraduna

Mikrofonoak jarri eta aktoreei zuzentzeaz arduratzen da.

★ Soinu mandataria

Soinu-ekipoa zaindu eta dena prest edukitzen du, edozein momentutan errodatu ahal izateko.





ARTEA ETA DEKORAZIOA

★ Zuzendari artistikoa

Errodaje eszenatokien dekorazioa pentsatu eta egiten du.

★ Erregidorea

Dekorazioko elementu guztiak (atrezooa) hornitzen eta kudeatzen ditu.

★ Atrezooa

Dekoratu bateko dekorazio-elementuak dira eta aktoreek erabiltzen dituzten objektu pertsonalak, adibidez, erlojuak, diru-zorroak, betaurrekoak, liburuak etb.

★ Atrezzo-arduraduna

Dekoratuetan dauden objektu guztiak antolatzeaz, jartzeaz eta zaintzeaz arduratzen den pertsona.



MAKILLAJEA ETA ILE-APAINKETA

Makillajeak indartzen du aktoreek pantailan duten itxura.

Argizatutako azala distiratsua da eta, argi-tonuaren eta azal motaren arabera, kolore ezegokia sor dezake, hortaz, beharrezkoa da makillaje-oinarri bat ematea, distirarik egin ez dezan.

Makillajeak pertsonaien ezaugarriak sortzen ditu, espresioak indartzen ditu, interpretatzen duen pertsonaiak adierazi behar duenaren arabera. Makillaje-taldearen arduraduna makillaje-burua da, eta filmaren tamainaren arabera bi laguntzaile edo gehiago izan ditzake.

Makillajeko efektu berezien ekipoak gero eta garrantzi handiagoa du egungo ekoizpenetan.

Ile-apainketaren ekipoak makillaje-taldearekin batera sortzen du artista taldearen irudia.

Aparteko taldeak izan arren, sorkuntza-lana elkarrekin egiten dute.



JANTZIAK

★ Figurinista

Film bateko jantziak diseinatzen dituen pertsona da eta erabakitzen du, zuzendaritzarekin batera, aktoreek zer arropa eramango duten.

★ Joskintza

Aktoreen arropak antolatzen ditu, zaindu eta eszena bakoitzerako prestatu. Aktoreen objektu pertsonalak (atrezzoa) ere zaintzen dituzte (erlojuak, bitxiak, poltsak...).

Jantziek funtzio zehatzak betetzen dituzte filmean; kontakizun orokorrean laguntzen dute. Aktoreak jantzi eta orraztu egiten dira helburu historikoak eta estilistikoak betetzeko edo gaiaren eta narrazioaren ereduak indartzeko. Dekoratuak bezala, jantzi-arduradunek atrezzo elementuak aukera ditzakete (jantzien tresneriak), pertsonaiaren hainbat ezaugarri esanguratsu indartzeko. Adibidez, betaurrekoak, eratzunak, eguzkitakoak...



Jantzigintza, sarritan, oso koordinatuta dago dekoratuarekin. Dekoratuak fondo neutroago bat eskain dezake, eta jantziek laguntzen dute pertsonaiak nabarmentzen. Kolorearen diseinua bereziki garrantzitsua da kasu horretan. Zuzendariak eta jantziak diseinatzen dituen pertsonak (figurinista) erabakiko dituzte jantziak eta horien tonalitateak, interpretatzen duten pertsonaiaren eta ekintza garatzen den dekoratuaren arabera.



MATERIAL ELEKTRIKOA

★ Gaffer edo elektrikoen burua

Material elektrikoa eta eszenako argiztapena antolatzeko taldeari beharrezko aginduak ematen dizkion pertsona da. Argazkilaritza-zuzendaritzaren agindutara dago.

★ Elektrikoa

Fokuak eta gainerako argiztapen-elementuak jartzen dituzten pertsonak dira.




MAKINISTA ETA GARABI-ARDURADUNA

Kamera eta kamerariak kokatuta dauden lekuan jartzen du travellinga eta garabia.

SALA EFEKTUAK

Errodajeko zuzeneko soinua osatu eta indartu ahal izateko soinuak sortzea, efektu bereziren bat lortzeko. Adibidez, atea ixtearen soinua, egurrezko lurraren karraska, masaileko bat etab.





MUNTAIA EDIZIOA

★ Muntatzailea

Irudiaren eta soinuaren azken muntaketaren arduraduna da.

★ Laguntzailea


Irudi-artxiboak antolatzen ditu.

EFEKTU BEREZIAK ETA EFEKTU DIGITALAK

Efektu bereziak dira errodajearen sail honek modu kontrolatuan sortzen dituen efektuak, adibidez, euria, suteak, auto-istripuak...

Efektu digitalak ikuskatzen dituzte filmaren bai aurreprodukzioan, bai errodajearen eta bai postprodukzioan.

Efektu digital edo bisualak DFX (Digital Effects) edo VFX (Visual Effects) izenez ezagunak, postprodukzioan, ordenagailu bidez sortutako efektuak dira eta errodaturako materialari gehitzen zaizkio.





KLAKETA



Klaketa zinema-munduko elementu zinematografiko adierazgarriena da, baina jende gutxiak daki zertarako balio duen.

Zertarako balio du?

1. Irudia eta soinua sinkronizatzeko. Klaketari eragitean, soinu bat egiten du: "klak". Soinu horrek markatzen eta laguntzen du sinkronizatzen irudia eta soinua edizio-lerroan, editatzen dugunean.
2. Irudi eta soinuen edizioa errazteko balio du, zenbaki bidez errodatutako eszenak, planoak eta tomak identifikatzen baititu.

Grabatzen ari garen eszena, planoak eta toma idatzita dituelako ere garrantzitsua da, editatzerako garaian lana errazten baitu eta jakin dezakegu zein den scriptaren oharretan ageri den toma ona.

MUSIKA

Ekoizpenaren ginda da. Nortasun propioa du. Konposatzaileak musika sortzen du; gidoia irakurtzen duen momentuan hasten du eta errodatzen eta filma editatzen denean amaitzen du bere obra.

Ez dugu film bat imajinatzen musikarik gabe. Musikak filma biltzen du, eszenak indartzen ditu, ikus-entzunezkoak osatzen duen bizipen filmiko auditiboan publikoari laguntzen dio.

Musika txertatzerako garaian, hainbat aukera daude:

- Filmerako musika berri bat sortzea.
- Beste autore batzuen musikak erabili eta autore-eskubideak ordaintzea.
- Liburutegiko musika erabiltzea, eskubiderik ordaintzeko beharrik ez dutenak.





►► Ariketa

ITZAL ZURIA. Talde izaera aitortzeko jolas kooperatiboa



Helburuak

Taldeko aurkezpenen lehen momentu batean, artile mataza eskaintzen diodan pertsonaren alderdi positiboren bat aitortzea.

Giro lasai eta atsegina sortzea, pixkanaka izotzaldia urtzeko.

Ekipo guztiaren artean lankidetzaz "sare" bat sortzea eta horren sinbolismoari buruz hausnartzea.

Abentura honen hasieran, argazki zenital baten bidez sare bidez elkartutako taldeari argazkia egitea.

Beharrezko materiala

- Artile-mataza bat edo hainbat koloretako hainbat mataza bakar batean elkartuta.
- Selfie makil bat eta sakelako bat argazki zenitala (goitik) egiteko artile bidez elkartutako talde guztiari.

Ekipo tekniko dinamika

Artile-mataza hartu eta hari punta batekin geratuko gara taldeari kontatzen diogun bitartean mataza eskaini behar diodan pertsonari buruzko ezaugarri positiboren bat. Amaitutakoan, artile-muturrari heldu eta taldeko beste bati kontu handiz jaurtiko diogu, hark esku-hartzea egin dezan.

Ariketa egingo dugu.

Talde guztia elkartzen duen hariarekin sarea egindakoan, honako galdera hauek egingo ditugu: zuen ustez, zer sinbolizatzen du sortu dugun sare honek? Zer gerta daiteke nik, adibidez, haria askatuko banu?

Helburua da taldean lan egiteko beharrari buruz hausnartzea. Filmak egin behar ditugu, eta horretarako beharrezkoa da denok parte hartzea, gure ekarpena ahalik eta hoberen egitea eta film bat sortzeko talde-lanean parte hartzea.

Amaitzeko, sortu dugun sarearekin, talde guztiaren argazki zenital bat aterako dugu, goitik. Sinbolikoki, lanerako talde bat sortu dugu.



FILMAREN SAILAK



04. SEK.

IRUDI ETA
SOINUEN MUNTAIA 2






Edizioaren ORDENA oso garrantzitsua da.

Irudiak karpeta zehatz batean ongi izendatuta gordetzea funtsezkoa da.



1

Egitasmoaren izenburua duen karpeta bat sortu ordenagailuan.




2

Sortutako karpetan editatu behar ditugun bideo-klipak gorde eta eszena identifikatzen duten izena jarri.




3

Edizio-programa aukeratu eta ireki.



4

Bideoak inportatu edizio-programara.



5

Editatu behar ditugun irudiak aukeratu.



6

Edizio-lerroan kopiatu.



7

Klaketak eta amaierako ediziorako behar ez dena kendu. Gure istorioa kontatzeko behar ez dugun guztia garbituko dugu.



8

Soinua editatu. Behar ez ditugun soinuak kenduko ditugu eta nibelak doituko ditugu.



9

Kreditu-izenburuak sortu.



10


Musika txertatu.



Aholkua

Edizio-programara irudiak inportatu ondoren, EZ dugu karpeta ren nahiz bideo-klipen izenik aldatuko. Hori eginez gero, arriskua dago edizio-programak proiektuaren ruta edo ibilbidea ez ezagutzeko eta lanarekin jarraitzeko zailtasunak izateko.

SADEk antolatutako Etxebegiak lehiaketarako Ikertze elkarteak sortutako tutorialean aurki ditzakezue edizio-hastapenerako urratsak:





►► 1. ariketa

Magia film laburraren tomen bideo-klipak deskargatuko ditugu, eta honako ariketa hauek egingo ditugu, oraingo honetan edizio-programa irekita dugula:



1. Moztu eta itsatsi. Kendu balio ez duten tomak eta klaketak.
2. Toma onak editatu eta tomaren hasiera eta amaiera findu (ez dadila entzun, adibidez, "ekin" hitza).
3. Iraungipenak jarri (disolbatu eta beltzera urtu dira erabilienak)
4. Kreditu-tituluak jarri.
5. Musika txertatu. Bolumen maila egokituko dugu ekintza ala elkarriketa egotearen arabera, musikaren gainetik soinuaren bati garrantzia eman nahi ote diogun erabakiko dugu.

►► 2. ariketa



Klaketen zatia soilik editatu eta musika jarri fondoan. Abiadura azkarrago edo motelagoan jar daiteke.


►► 3. ariketa

Toma faltsuak editatu.



05. SEK.





ZINEMAREN JATORRIA, IRUDIA MUGIMENDUAN

Zinemaren jatorriaren berri izatea garrantzitsua iruditzen zaigu, XX. eta XXI. mendeetako zinema posible egin duten zinegile guztiak errespetatzea eta zinemaren bilakaera ulertzea, 127 urteko ibilbidean (1895-2022).



NOLA SORTZEN DA IRUDIA MUGIMENDUAN?

Erretina-iraunkortasuna

Gure garunak elkartzen ditu hainbat fotograma eta mugimendua ematen die. Horretarako beharrezkoa da proiektoreak 24 fotograma segundoko proiektatzea. Ilusio optiko horri **erretina-iraunkortasuna** deitzen zaio.



►► Ariketa

“24 eta 25 fotograma segundoko”

Gure hiriko filmotekak aurrez utzi digun 35 mm-ko pelikula-lata irekiko dugu.

Bi ilaratan, ikasleek bobina zabaldu eta askatuko dute, kontu handiz, baina beldurrik gabe. Fotogramak zer diren ikusiko dugu eta baita ertzeko soinu-lerroak ere, berde kolorekoak. Marra bakarra baldin badago mono-soinua da, eta bi baldin badaude, estereo-soinua.

Prozesuaz jabetu gaitezen, filmaren 24 edo 25 fotogramak kontatuko ditugu.



Aukerako gai interesgarri gisa: 35 mm, 16 mm, 9 mm eta super 8 mm-ko errebelatua espezializatutako laborategi batean egin behar zen.



ZOOTROPOA

IRUDIA MUGIMENDUAN IKUSTEKO LEHEN TRAMANKULUAK

1834 urtea arte, ia ezinezkoa izan zen mugimendua irudian islatzea.

Zootropoari mirariaren danborra ere deitzen zaio, mirari txiki bat baita, adibidez, bikote bat dantzari ikus daiteke, nahiz eta berez paper batean marraztuta geldik egon.




ZOOTROPO BATEN ERAIKUNTZA edo nola hasi ziren irudiak mugimenduan

Zootropoa biratzean eta zirrikietatik kanpotik barrura begiratzean, irudiak mugitzen ari direla irudituko zaigu. Ez baduzu zirrikietatik barrena begiratzen, ezingo duzu irudirik mugimenduan ikusi. Begiak atsedenaldira behar du irudi indibidualen artean ilusio hori sortzeko (erretina-iraunkortasuna deiturikoa).



Zootropoan, eten hori lortzen da zirrikitu arteko azalarekin. Begiaren bidez estimulu bisuala zure garunera iristen da, eta oso azkar ageri diren irudi indibidualak mugimendu batean fusionatzen dira (efektu estroboskopikoa).

Praktika honetarako erabilitako irudi-zerrendak jatorrizko koadroen erreproduzioak dira, 1850 eta 1905 urteak bitartekoak, eta Berlingo Deutsches Filmmuseum museoko erakusketa iraunkorrean ikus daitezke.



SEC05 | 49







Gomendatutako adina: 8 urtetik aurrera eta, aurretik, pertsona heldu baten laguntzarekin.

Materiala

- Zootropoa mozteko eta itsasteko txantiloiak
- Txintxeta edo iltze bat
- Aerosol edo ur-botila baten tapoi edo tapa bat edo kortxo bat
- Kola
- Guraizeak
- Koloretako margoak, margotu nahi duenarentzat


Jarraibideak

1. Danborraren alboetako zatiak eta fondoa moztu marretatik.

Alboetako zirrikituak atzeraka tolestu eta moztu.

Lerro jarraitua duen tolestura barrurantz tolestu, baina ez itsatsi oraindik, argi eduki arte zootropoaren oinarria ongi sartuta geratzen dela.

2. Zeloarekin estali barneko tolestura eta itsatsi zootropoaren oinarria gainaldetik.
3. Txintxetarekin zulatu, danborraren ertzaren erditik barrena, aerosolaren tapan edo kortxoan.
4. Jarri pelikula tirak zootropoan eta birak emanarazi.



ZOOTROPORAKO PELIKULAK




Mugitzen ari den irudi bat irudika ezazu. Adibidez, boteka ari den pilota bat edo itsasontzi bat itsasotik barrena.

Zure irudi-zerrenda diseinatzeko, hobe da mugimendu argiak dituzten irudi sinpleak bilatzea.

Filma egiteko hamabi irudi (fotograma) dituzu; hamabigarrena lehenengoarekin lotu behar da.




Pelikula-txantilo
zuriak eta irudiekin









Batez ere ondo pasa eta esperimentatu!!!





Zootropo bat
eraikitzeko adibide bat



ZINEMAREN JATORRIA, IRUDIA MUGIMENDUAN








Moztu 3 irudi hauek eta eta
fotograma hutsetan itsatsi
pelikula osatzeko.





ZINEMAREN ASMATZAILLEAK



**Wintergarten de Max
eta Emil Skladanowski**
Bioscopearen asmatzaileak.



**SKALADANOWSKI ANAIEN
BIOSCOPEA**

Berlin 1895



**Lumière anaien
biografia**

Auguste Marie Louis Nicolas Lumière,
Besanzón 1862 - Lyon 1954
Louis Jean Lumière,
Besanzón 1864 - Bandol 1948



**LUMIÈRE ANAIEN
ZINEMATOGRAFOA**

Paris 1895



**ALICE GUY, ZINEMA
NARRATIBOAREN AITZINDARIA**

Paris 1897



ALICE GUY ZINEGILEAREN BIOGRAFIA

Paris 1873 - New Jersey 1968



Ekoizle, zuzendari eta gidolari frantsesa. **Lehen emakume zuzendaria eta muntaketaren asmatzailea, zinema narratiboaren aitzindaria.**

Idazle famatu baten alaba gazteena zen, eta horregatik arte eta literaturekiko maitasun handia garatu zuen. **1885ean, León Gaumont zinemagilearen idazkari gisa lan egiten hasi zen**, hau da, zinema-industriaren aitzindarietako baten idazkari izan zen, argazkilaritza-ekipoak fabrikatzen zituzten enpresa batean.

1895eko martxoaren 22an, Louise Lumière anaietako batek Gaumont gonbidatu zuen sortu berri zuen asmakuntzak nola funtzionatzen zuen erakusteko: makina horren bidez argazki finkoak mugimenduan jartzen ziren. Alice Guyri harrigarria iruditu zitzaion tramankulua eta zer pentsatua eman zion. Gaumontek, gerora, Lumière anaien 60 mm-ko kamera perfektionatu zuen, oso ongi jakin gabe zer egingo zuen aparatu berriarekin. **Guyk 23 urte zituenean, pentsatu zuen zinematografoaren emaitzak istorioekin animatu ahal izango zirela, guztiz mekanikoak ziren erregistro horien monotonia saihesteko.** Gaumonti esan zion **zinemarekin istorio txikiak kontatzea posible zela, eta prest zegoela hori erakusteko.** Gaumonti ideia hori iradokitzean, hark esan zion: "Nahi duzun bezala... haurrentzako jostailu bat baino ez da...". Utzi zion bada, Guyri lan hori egiten, igandetan, idazkari-lanak alde batera utz ez zitzaizkion.

Alice Guyek **zinemaren historiako lehen film narratiboa** egin zuen: *La Fee aux Choux, Azen maitagarria*, 1896. Alice Guyren asmakuntzak

izugarritzko arrakasta izan zuen, eta Gaumonten enpresako aparatuak oso ondo saltzen hasi ziren. Beraz, Gaumontek Guy idazkari lanetatik aske utzi zuen. Momentu hartatik aurrera, ekoiztetxe berriaren arduradun bilakatu zen.

Bere bizitzako garai hartan egindako film guztiak proiektu oso handizaleak izan ziren: opera eszenak nahiz eszena militarrek. Astean bi film labor ekoiztera iritsi zen, **1905ean, konpainiako gainerako zuzendarien ikuskari izendatu zuten arte.**

Bi urte beranduago, Herbert Blaché kamerari britainiarrekin ezkondu zen; hark zuzentzen zituen Gaumonten Ingalaterrako eta Alemaniako bulegoak. Bikoteak Estatu Batuetara bidaiatu zuen, eta han Alicek lana utzi zuen 3 urtetan zehar etxeko lanak egiteko. Lehen alaba izan zuen, Simone.

Etxeko bizitzaz aspertuta, zuzendaritzara bueltatu zen, eta bere diruarekin ekoizpen-etxe bat sortu zuen, Solax Company izenekoa. Han mota guztietako filmak egin zituen: komediak, dramak eta western filmen bat.

1910 eta 1914 bitartean, konpainiak hainbat mota eta iraupeneko 325 film ekoitzi zituen, eta, esaten dute, 50 inguru enpresako zuzendaria zuzendu zituela. New Jersey munduan hobekien hornitutako estudioa sortu zuen; han arrakasta handiko filmak zuzentzen jarraitu zuen 1920 arte. 1907an, arrakasta handi bat zuzendu zuen: *Piano erakargarria*.

Gaur egungo datuekin, badakigu bere bizitzan 1000 film inguru zuzendu eta ekoitzi zituela. Beste bi konpainia zinematografiko sortu zituen arren,

1919tik aurrera, ezinezkoa izan zen Hollywoodekin lehiatzea, eta konpainia boteretsuagoekin lan egiten hasi zen. Industria independenteko bere aroaren amaierara iritsi zen. Azkenik, **konpainiak behea jo zuen eta baita bere bikote-harremanak ere. Enpresa itxi ostean, hitzaldi publikoak ematen aritu zen zinemaren hastapenei buruzkoak.**

1922an, Frantziara itzuli zen; senarrarengandik dibortziatu ostean, inoiz ezin izan zuen zinemara bueltatu: industriatik kanpo geratu zen. Industria honek ez zion bera bezalako zinema aitzinari batek merezi zuen tokia eman (gauza bera gertatu zitzaion Georges Méliès zuzendariari ere).

1964an, Estatu Batuetara bueltatu zen alabekin, eta han bere filmak bilatu eta berreskuratu nahi izan zituen. Kongresuko liburutegian begiratu zuen, zinema artxibo nahiz filmotekatan, baina ez zuen ia bere pelikularik topatu eta, topatutakoek bere lankideen izenak zituzten zuzendariaren tokian.

1949an, 76 urte bete zituenean, Alice Guy Parisera bueltatu zen; han Cinematecak omenaldi handi bat egin zion munduko lehen zinema-zuzendari emakumea izateagatik. Komunikabideetan oihartzun handia izan zuen, eta beranduago Ohorezko Legioaren Chevalière insignia eskuratu zuen.

Alice Guy New Jersey hil zen, berak zinemaren historiaren norabidea aldatu zuen estatuan. 95 urte zituen. Ez zen inongo egunkaritan bere eskelarik azaldu.



ZINEMAREN HISTORIAREN LEHEN FILMAK: LUMIÈRE ANAIAK

Paris 1895

Imajina dezagun momentu batez...

1895 urteko Parisen gaude.

Abenduko egun batean berrikuntza bat iragarri zen: "Zinematografoa". Parisko Kaputxinoen bulebarreko areto batean izango zen estreinaldia. Areto txikia zen, Lumière anaiak ziur baitzeuden izugarrizko porrota izango zela.

Inork ez zekien zinema zer zen. Ordura arte, jendeak soilik argazkilaritza ezagutzen zuen, hau da, mugimendu gabeko irudia.

Hori garrantzitsua da, ezinezkoa baitzen irudika ezina irudikatzea!!!

Egun hartan proiektatu zuten, lehen aldiz, egun filma deitzen duguna. Minutu bateko iraupena zuten, grabaketa-pelikulak minutu baterako negatiboa zuelako. Ikus dezakezuen bezala, grabatzen zituzten filmetako gaiak egunerokotasunekoak ziren.



Tren baten etorrera geltokira (1896)

Lehen beldurrezko filma

Publikoa aretotik korrika atera zen, pentsatzen baitzuten trenak harrapatu egingo zituela! Sekula ez zuten irudirik mugimenduan ikusi!

4K formatuan zaharberritua



(0:00- 1:55)

Fabrikako irteera (1895)

Lehen film dokumentala

Film honetan hasiera- eta amaiera-elementuak fabrikako ateen irekiera eta itxiera dira.

Zenbat pertsona, gurdi eta zakur ateratzen ziren!! 1895. urtea zen.



Ureztatzaile ureztatua (1895)

Lehen film barregarria



▷▷ ARIKETA

Gure lehen filma egingo dugu: “Lumière minutua”. Grabatzera!

Lumière anaien filmetan ikusi dugun bezala, planoek minutu bateko iraupena dute, bobinak (pelikula-biribilkiak) minutu bateko iraupena zuelako, kameraren txasisaren tamainarengatik. Film hauek zuzenean grabatzen ziren, planorik editatu gabe. Horrexegatik, **PLANO OROKOR BAKARREAN GRABATUTAKO** filma da.

Lumière minutu bat egiteak 2 funtsezko gauza eskatzen ditu:

- **Hautaketa:**

Zer filmatu nahi dugu? Pertsonak, keinuak, soinuak, koloreak, argiak?

- **Kokapena:**

Gauzen kokapena batzuk besteekin erlazionatuta:

Grabatzeko aukeratu ditudan elementuak kaptatzeko non jarriko dut kamera?

Nola jarriko ditut elementu horiek kameraren aurrean esanguratsuagoak izan daitezen? Zer sartuko dut edo utziko dut enkoadraketatik kanpo?



Kontuan izan dezagun:

1. Filma plano bakarrean grabatuko dugu; toma berean hasi eta bukatzen den zerbait gertatzen da.
2. Minutu bateko iraupena izan behar du.
3. Kamera tripode batean finko egon behar da (inolako mugimendu fisiko edo optikorik gabe).
4. Film laburra mutua edo ingurune soinuarekin (elkarriketarik gabe) izan daiteke.
5. Soilik editatuko dugu filma zuri-beltzera pasatzeko, musika gehitzeko eta kreditu-tituluak idazteko.
6. Zer-nolako musika jarriko diogu? Hogeiko hamarkadakoa? Gaur egungoa? Zein doakio hobe?
7. Zer tipografia aukeratuko dugu kreditu-titulentzat?

Lumière Minutuen adibideak



Aholkuak

- 1 Eskuak garbi eta ongi lehortuta.
- 2 Kamera edo sakelakoaren objektiboa garbitu. Ez ukitu eskuekin. Objektiboa zikintzen bada, marka filmean geratuko zaigu.
- 3 Tripodea jarri eta ziurtatu ondo helduta dagoela eta hankak ongi nibelatuta. Gauza bera sakelakoa erabiltzen baldin badugu.
- 4 Berrikusi eta ukituak egin grabatu behar dugun dekoratuan. Komeni da tarte bat egotea bisoretik begira eta enkoadraketa zaintzea, bereziki agertzea nahi ditugun gauzak jartzeko (argazkiak, objektuak) edo kentzeko garrantzitsua ez dena eta agertzea nahi ez duguna.
- 5 Oso garrantzitsua da entseatzea, ez soilik aktoreentzat, baita kamerarentzat, argiztapenarentzat etab. Horregatik gomendatzen dizuegu entseguak egitea ziurtatu arte lortu duzuela grabatu nahi duzuen.
- 6 Grabatutako entseguak zoragarriak dira toma faltsuen filma bat egiteko.



Errodatzen hasteko protokoloa:

Zuzendariak edo zuzendaritza-laguntzaile gisa ari den pertsonak honako hau esango du denak isilik daudenean:



- 1 **"Kamera"**. (kamera-arduradunak egiaztatuko du kamera grabatzen ari dela) eta
- 2 Kamera daraman pertsonak erantzuten du... **"Grabatzen"**



- 3 Soinua dagoenean, hobe da aurikularrak erabiltzea, hobeto entzuten dugulako grabatu behar duguna. Ongi entzuten dela egiaztatuko dugu eta...
- 4 Soinu-arduradunak erantzuten du... **"Grabatzen"**



- 5 Klaketa duen pertsonak dio **"1. eszena" / "1. plano" / "1. toma"**.
Toma errepikatuko bagenu honako hau esango genuke **"1. eszena" / "1. plano" / "2. toma"**
eta eszena edo plano aldaturaz gero, **"2. eszena" / "2. plano" / "1. toma"**.
Gidoian ageri den eszena-ordenaren arabera aldatuko dugu zenbakia.
- 6 Klaketa kolpatu. **"Klak"**.
Kameratik aldentuko gara koadroan ez ateratzeko eta MUNDU GUZTIA ISILIK ETA PLANO PREST DAGOENEAN, ZUZENDARIAK, OZEN, TALDE GUZTIAK ENTZUTEKO MODUAN, HONAKO HAU ESANGO DU: **"EKIN!"**

(Klaketa eskuekin egin daiteke edo soinu bat egiten duen zerbaitekin, horrek balioko baitigu irudia eta soinua sinkronizatzeko, editatu behar dugunean.

Garrantzitsua da bereizten hastea: Zer kontatu nahi dugun eta nola kontatu nahi dugun.

ZER KONTATU NAHI DUGU

Zer mezu bidali nahi diegu ikusleei eta zer sentimendu sorrarazi: alaitasuna, baikortasuna, tristura, beldurra, konfiantza etab.

Adibidez:

Idea: Gure planeta zaintzea maitasun keinu bat da.

Mezua honako hau da: "Mundu hobe bat eraikitzea posible da".

Generoa: komedia.

NOLA KONTATUKO DUGU edo zer istorio asmatuko dut mezua igortzeko

Adibidez:

Nire hiriko hondartza batera ezin da joan, zaborrez beteta dagoelako. Jendeak han hondakinak botatzen ditu, eta itsasotik datorrena ere iristen da.

Inguruko bizilagun-elkarte batek zabor-bilketa bat antolatu du eta hondakinak materialen arabera bereiziko dira (metala, plastikoa batik bat). Gero eta jende gehiago batu da garbiketara. Urte betera, lortuko dute garbitzea eta birziklatzea itsasoak uzten duen zabor guztia. Gainera, ingeniariak eta biologia munduko pertsonak egitaspora batu dira, planetaren zati hori salbatzeko, eta enplegua sortu dute, birziklapen-enpresak eta gatzgabetzeko fabrika bat eraikiz, lurra landatu ahal izateko.



ALICE GUY ZUZENDIAREN LEHEN FILMA IKUSIKO DUGU

Piano erakargarria planoak editatu eta nahasten diren lehen filma da, eta horrek narrazio bisual bat sortzen du, alegia, istorio bat.

Gai eta plano ardatz bat dago: piano-jolea eta musika.

Beste plano orokorrek kontatzen digute auzoa nola erakartzen duen musika zoragarriak.

Plano solte horiek ez lukete zentzu handirik edukiko, baina ordenaturik eta itsatsita, istorioari eta mezuari zentzua ematen diote: "musika erakargarria da".



Piano erakargarria (1907)

Alice Guyk zuzendutako eta editatutako lehen filma ikusiko dugu. 4'17''



Tutoriala



**Pelikularen eszenak desglosatuz,
honako plano hauek ikusiko ditugu:**

1. Hasierako kreditu-titulua.
2. Gelaren plano orokorra. Garraiolariak pianoa eta beste altzari batzuk ekarri dituzte.
3. Plano orokorra, piano-jotzailea jotzen.
4. Jangelan, bizilagunen plano orokorra. Dantza egiten dute.
5. Pianoaren gelako planoak jangelako bizilagunak dantzan daudela.
6. Josten eta siesta egiten duten bizilagunen plano orokorra. Dantza egiten dute.
7. Pianoaren gelako plano orokorra, bizilagunak dantzan daudela.
8. Jostun-tailerreko plano orokorra. Dantza egiten dute.
9. Pianoaren gelako plano orokorra, bizilagunak dantzan daudela.
10. Poliziaren planoak kalean, portalean sartzen.
11. Bizilagun guztiak eta polizia pianoaren inguruan ari dira dantzan, eta nekatuta dagoen piano-jolea jotzera behartzen dute.
12. Amaierako kreditu-tituluak.



1

2

3

4

Piano erakargarria

*Zuzendaria
Alice Guy*



5

6

7

8



9

10

11

12



*Musika
Iñaki Salvador*

▷▷ ARIKETA

Gure filma egingo dugu: "Alice Guy minutuak" grabatzen!

Kontuan izan dezagun:

1. Gure elementu "ardatza" definitu
(**Piano erakargarria** filmaren kasuan, musika).
2. Usaimena, ikusmena edo entzumena bezalako zentzumenen batek lagun diezaguke. Adibidez: sukaldean txokolatezko pastel bat egin dut, eta etxeke beste geletan denek usaindu dute, eta sukaldera doaz txokolate usain zoragarriak hipnotizatu balitu bezala.
3. Idatzi zenbat plano beharko ditugun.
4. Iraupena 4 minutu gutxi gorabehera.
5. Plano bakoitza grabatzeko soilik plano orokorra erabiliko dugu.
6. Kamera finko egongo da, eta tripode gainean jarrita.
7. Editatzerakoan, planoak ordenatuko ditugu gure istorioari zentzua emateko, eta musika eta kreditu-tituluak txertatuko dizkiogu.

"Alice Guy minutuen" adibideak





EFEKTU BEREZIAK



Georges Méliès
zuzendariaren biografia

- Martin Scorsese zuzendariaren **Hugo** (2011) filma ikustea gomendatzen dizuegu.
- SM editorialeko **Hugo Cabreten asmakuntza** liburua irakurtzea gomendatzen dizuegu.

Filma ikusi

Ilargira bidaia (1902)

Gomazko burua duen pertsona (1902)



ZINEMAREN JATORRIA, IRUDIA MUGIMENDUAN

06. SEK.



IKUS ENTZUNEZKO LENGOAIA 2

Ikus-entzunezko lengoaia ikasteko prozesua irakurtzen ikastea bezala da.



Planoak
letrak
bezala dira



Eszenak,
berriz,
hitzak

*Zinema ikasten
dut eskolan*

Ordenatutako eszena multzo
batek sekuentzia bat osatzen
du, eta horiek esaldiak dira



Sekuentzia multzo bat paragrafoak osatzen dituzten esaldi multzoak bezala da eta, aldi berean, obra osatzen dute.
Editatutako film bat, kreditu-tituluekin eta musikarekin, liburu editatu bat bezala da, eta publikoarekin partekatzeko prest dago.





PLANOAK ETA KAMERAREN MUGIMENDUAK


Egiten den konposizio motari planoak esaten zaio, kontuan izanda espazioa nahiz subjektuaren posizioa enkoadraketan eta baita elementu nagusiarekiko kamerak duen posizioa ere.

PLANO FINKOAK

DESKRIBATZAILEAK


- Plano orokor handia

Objektu nagusi protagonista da ekintza garatuko den ingurunea.



- Plano orokorra

Eszenatokiaren ikuspegi orokorra eskaintzen du eta publikoa ekintzaren giroan kokatzen du.



NARRATIBOAK

- Plano amerikarra

Western filmetan asmatu zen, unai edo bakeroen pistolei arreta eskaintzeko.



- Erdi mailako planoak

Pertsonarengana eta haren espresiora hurbilduko gara.



ADIERAZKORRAK

- Lehen planoak

Espresio eta sentimenduei indarra ematen zaie.




- Xehetasun planoak

Indartu nahi dugun zerbait azpimarratzen du.



Plano finkoak
Tutoriala



Plano orokor handia

Plano orokorra

Plano amerikarra

Erdi mailako planoa

Lehen planoa

Xehetasun planoa



PLANOA ETA KONTRAPLANOA



Plano orokorra



Totóren planoak



Kairen kontraplanoa

SEKUENTZIA-PLANOAK



Sekuentzia-planoa
Gaitz-egarri, Orson Wells

PLANOAK MUGIMENDUAN





Planoak mugimenduan
Tutoriala (1:14 minutua)




Plano mota zinematografikoak: enkoadraketaren,
angeluen eta ikuspuntuaren arabera

KAMERAREN ANGELUAK




Plano arrunta



Plano holandesa

KAMERAREN MUGIMENDUAK



Kamera-paneoa

Ezkerretik eskuinera / Eskuinetik ezkerrera
Goitik behera / Behetik gora



Travelling






Steadicam



ENKOADRAKETA

Gure istorioa kontatzeko grabatu nahi duguna aukeratzea da enkoadratzea.


Lehenik, aukeratu egingo dugu, enkoadratu, planoan zer den garrantzitsua erabaki gure istorioa publikoari kontatzeko. Horretarako, kamera posizio egokian jarriko dugu aukeratutako enkoadraketarekin.



Kamera kolokatzeko eta enkoadratzeako kontuan hartu beharreko bi arau garrantzitsu:

Kameraren objektiboaren erdigunea eta enkoadratutako azaleraren erdigunea elkartuko lituzkeen lerro hipotetikoa litzateke kameraren ardatza. Hortaz, aurreranzko eta atzeranzko travellingak benetako lekualdatze bat dira kameraren ardatzean barrena, aldiz, zoom in eta zoom out mugimenduak fikziozko edo irudikatutako lekualdatzeak dira ardatz berebean.



Kameraren ardatza behar bezala lantzeko **30 gradutako araua** deiturikoa zein den jakin behar da. Arau honen arabera, plano baten eta ondoren datorren planoaren kamera-ardatza artean, 30 gradu eta gehiagoko desberdintasuna egon behar da. Hori horrela da kamera toki berean geratuko balitz edo 30 gradu lekualdatuko balitz, ez lukeelako planoak nahita aldatu denik emango, akats bat, mozketak bat, jauzi bat dela pentsatuko genuke, justifika ezina den zerbait kamera-ardatz beraren barruan.



Ekintza-ardatza: pantailan antzezten ari diren pertsonaia guztiak lotuko lituzkeen lerro imaginarioa da. Pertsonaia bat baino gehiago egongo balitz, ekintza-ardatza haien begiradek definituko lukete.

Ekintza-ardatzaren inguruko lekualdatzeak 180 gradutako legeak arautzen ditu.

Hau da, ardatzaren alde bakoitzean eszenatokia 180 gradutako bi areatan banatzen da, pertsonaien begiraden bidez. Beraz, kamera area horietako batean kokatzen den bakoitzean, eszena horretako hurrengo tomak edozein posizio, distantzia edo alturatatik egin daitezke, baina beti area berberaren barruan. Horretarako arrazoia da, arau hori urratzeak publikoa desorientatu egiten duela.





ELIPSIA, FLASHBACKA ETA RACCORDA

Ekintzan garrantzitsuak ez diren espazioak eta denborak desagerrarazteko balio dute **elipsiek**, baita filmaren denborarengatik pelikularen iraupena egokitze ere. Kasu batzuetan, errotulu bat erakusten da eszena batetik besterako denbora azaltzeko. Adibidez "Lau urte beranduago..."

Adibide gisa *Magia* filmaren fotogramak: neskak erakuslehoari begira eta neskak pelikula ikusten. Elipsia da ikusten ez duguna, baina ulertzen dugu neskatoak dendan sartu direla eta dendariak filma ikustera gonbidatu dituela.



Jarraitutasun zinematografikoa edo **raccord** deiturikoak erreferentzia egiten dio filmazio bateko planoen artean dagoen erlazioari, hartzaila edo ikusleari hautsi ez dakion sekuentzien jarraipena. Plano bakoitzak erlazioa eduki behar du aurrekoarekin, eta ondoregoaren oinarri izan behar da.

JARRAITUTASUN MOTAK

Jarraitutasuna espazioan

Lerro birtualak, pertsonaien norabidea, keinuak eta begiradak.

Jarraitutasuna jantzietan eta eszenografian

Pelikulak ez dira grabatzen sekuentziaz sekuentzia segidan (modu kronologikoan gidoiaren arabera), eta horregatik ziurtatu behar da pertsonaien jantziak eta ingurukoa ez dela aldatzen arrazoirik gabe.

Jarraitutasuna argiztapenean

Ez daitezela egon bat-bateko tonu eta argi mota eta intentsitate aldaketak espazio eta sekuentzia berean (ez bada behintzat zuzendariak espresuki adierazitakoa behar narratibo batengatik).

Interpretazioaren jarraitutasuna

Oso garrantzitsua da aktoreek jarraitutasuna zaintzea, ez soilik espaziala edo mugimenduzkoa (zer norabidetan doazen etab.), baita interpretazioarena ere. Ahotsaren tonua eta adierazkortasuna bezalako faktoreak zaindu behar dira, naturala gerta dadin plano aldaketa bakoitzean eta justifikatua narrazioari dagokionez.

Flashbacka

Istorioaren lerroaren "orainaldia" eteten du, ikusleei iraganeko eszena bat erakusteko.

►► 1. ariketa

Grabatu egingo dugu kontuan izanda kameraren ardatza, planoen ordena eta nola editatu:

- Kamera finkoarekin, bi pertsona elkarriketan grabatuko ditugu, bi pertsonen plano orokor bat, erdi mailako plano bat eta bakoitzarentzako plano motz bat erabiliz. Beste pertsonaren kontraplanoak ere errodutuko ditugu plano bereberekin, 180 gradutako ardatza kontuan izanda. Testua asmatua izan daiteke edo ez.
- Planoak tartekatuz editatu egingo ditugu irudiak. Hainbat aukera frogatu. Adibidez, has gaitezke plano orokorra editatzen, gero erdi mailako plano eta, ondoren, lehen plano eta, edota plano orokorretik lehen planora eta, ondoren, plano orokorrera berriro ere... Ikusi zer sentsazio eragiten digun.
- Orain plano berberak grabatuko ditugu, 180 gradutako ardatza errespetatuz, baina oraingo honetan kameraren posizioa 30 gradu mugituta. Planoa eta kontraplanoa errodutuko ditugu.

Kameraren posizioa eta angelua aldatzen dugunean, dinamikoagoa gertatzen da? Horrek adierazten digu, gero eta plano gehiago egin eta kamera hainbat angelutan jarri, editatzerako garaian emaitza dinamikoak sortzeko aukera gehiago izango dugula.

- Editatu egingo dugu. Editatzea garrantzitsua da, orduan konturatzen baikara behar bezala grabatu ote dugun edo ardatza ez dugun aintzat hartu.



►► 2. ariketa

Grabatuko dugu:

1. SEK. ANDREA ANDEREÑOAREN IKASGELA. BARR./EGUNA

Andrea andereñoa matematikako ariketa bat idazten ari da arbelean.

Pertsona bat gelan sartu, andereñoarengana hurbildu eta, belarrira, galdetu dio ea ikasle bat atera daitekeen.

Andrea andereñoak baietz esan dio; izen bat esan eta ikasle horri ateratzeko eskatu dio, abisua ematera etorri denarekin joateko esan dio.

Ikaslea atera egin da.



Eszenak errodatuko ditugu soinuarekin nahiz gabe: errodajea planteatzeko 3 forma desberdin.

1.

Eszena sekuentzia-planoan errodatuko dugu, hau da, hasieratik bukaerara, moztu gabe, kamera ikasgela barruan dela. Pertsona sartzen ikusten dugu, irakaslearengana hurbildu, zerbait esan, atera behar den neskatoa altxatu, atera eta eskolak jarraitzen du.

Lumière minutuan ez bezala, paneo bat egin dezakegu (panoramika bat) kamerarekin, gug egokien deritzogun bezala.

2.

Ekintza guztia errodatuko dugu honako hauek erabiliz:

- Lehenik eta behin, eszena guztia hasieratik amaierara Plano orokorrean.
- Bigarren, andereñoaren eta ikaslearen plano kontraplano bat, belarrira zerbait esaten dionean.
- Hirugarren, ikasgelaren ikuspegia, irakaslea dagoen tokitik, eta hor neska altxatzen eta joaten ikusiko dugu.

3.

Plano subjektiboa erabiliz errodatuko dugu, ikasgelan sartzen den pertsonak ikusten duena, eta sekuentzia-planoan. Kasu horretan, kamera neskatoaren begiak izango lirateke:

- 1 Andrea andereñoa arbelean idazten ikusten du,
- 2 ikasgelaren ikuspegia,
- 3 Andrea andereñoaren ikuspegia, neskatoari atera behar dela esanez,
- 4 neskatoa jaiki eta ikasgelatik ateratzen deneko ikuspegia.

Alfred Hitchcockek zioen film bat elkarriketarik gabe ulertzen baldin bazen, film ona zela...

EDITATU EGINGO DUGU

Errodatzeko 3 moduak bakoitza bere aldetik editatuko ditugu, eta baita erabili ditugun planoak nahastuz ere, emaitza osoagoa bat lortu ahal izateko.

Adibidez:

- Plano orokorra neskatoa sartzen eta irakaslearengana hurbiltzen.
- Elkarriketaren plano kontraplanoa.
- Ikasgelako planoak irakaslearen ikuspegitik: atera behar den neskatoari deitzen dio.
- Ikasgelako plano orokorra: neskatoa altxatzen, kamera beste angelu batean dagoela.
- Ikasgelako plano orokorra: irakaslea arbelera begira dago idazten jarraitzeko eta neskatoa ikasgelatik ateratzen.




Aholkua

Kontuan hartu beharrekoa
Non jarri kamera eta non
jarri mikrofonoa, elkarriketa
dagoen ala ez kontuan izanda.

07. SEK.

ZINE FORUMA 1





FILMAK IKUSI ETA HORRI BURUZ HITZ EGIN

Igortzen duten mezua eta planoak ikusi eta aztertuko ditugu.

- Zer plano mota erabiltzen ditu?
- Idatzi planoz plano eta ordenan, zer plano mota erabiltzen diren. Ikusi nola editatzen diren.

Filmei buruzko elkarrizketak
laguntzeko gidak deskargatu:



Globo gorria
1956
Albert Lamorisse
(25')



Zurda zuria
1953
Albert Lamorisse
(25')




Ogia eta kalea
1970
Abbas Kiarostami
(9')



**Hemen gerta daiteke,
komunikazioa SM**, 2016
Blanca Zaragüeta,
Joseba Huegun (20')



08. SEK.



ARTISTA TALDEA

AKTOREAK



►► Ariketa



Aurrez aztertutako film labur batzuk ikusi eta azter dezagun zein diren aktore protagonistak, antagonistak, bigarren mailakoak eta estrak.

★ PROTAGONISTA

Filmeko pertsonaia nagusia da. Bera da bultzada ematen duen pertsonaia, oztopoei aurre egiten diena. Erabaki funtsezkoak hartzen ditu eta horren ondorioak esperimentatzen ditu. Filmean protagonista bat edo gehiago egon daitezke. Pertsonak zein animaliak izan daitezke.

★ BIGARREN MAILAKO AKTOREAK

Pertsonaiak interpretatzen dituzte antzerki, film eta telesailetan, aktore protagonistei lagunduz. Helburua lortzeko zailtasunak eragin ditzakeen pertsonaia izan daiteke; publikoarengan tentsioa eta jakin-mina eragiten du. Funtsezkoak dira istorioaren garapenerako eta trama askatzeko. Protagonistak bezala, bakarra nahiz pertsona bat baino gehiago izan daitezke.

★ FIGURANTEAK EDO ESTRAK

Eszenari errerealismoa eta sinesgarritasuna emateko jardueraren bat egiten eszenan ageri diren pertsonak dira.

★ ESPEZIALISTAK

Arrisku handiko eszenatan aktore protagonistak ordeztzen dituzte.

★ INTERPRETAZIO ORDEZKOAK

Ekintzak bikoizten dituzten pertsonak, adibidez, pianoa jotzen duen artista.

★ ARGIETAKO ORDEZKOA


Eszenako aktoreen ezaugarri fisiko antzekoak dituzten pertsonak dira, eta dekoratuan kolokatzen dira.

★ KOLABORAZIO BEREZIAK EDO KAMEOAK

Arrakasta handiko pertsonen antzezpenak dira; filmara publikoaren arreta bereganatzeko erabiltzen dira. Obran, dramatikoki, garrantzia gutxi izaten duten kolaborazioak dira.

09. SEK.

ZINE FORUMA 2





FILMAK IKUSI ETA HORRI BURUZ HITZ EGIN



Igortzen duten mezua eta planoak ikusi eta aztertuko ditugu

- Zer plano mota erabiltzen ditu?
- Zein dira protagonistak?
Zein dira bigarren mailako aktoreak?
Eta filmaren antagonistak?
- Ba al da figurazio, ordezeko edo espezialistarik?



Lunch Date

1989

Adam Davidson

(11')



Lunch Time

2005

Chus Gutiérrez

(3'55'')



3 egun falta dira

2019

Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak

(13')




Orain arte ikasitakoaren errepasoa

- GRABATU DUGU
- EDITATU DUGU
- FILMAK IKUSI ETA AZTERTU DITUGU


Ongi ari gara!



Jarraituko dugu...



10. SEK.



GIDOI ZINEMATOGRAFIKOA



Zinema-talde baten lanerako tresna komuna da.

Sail bakoitzak filma ezagutu, desglosatu eta errodajerako zer prestatu behar duen jakiteko balio du.

Formatu estandarra du, idazketa-arau batzuekin, irakurketa eta identifikazioa errazteko.

Formatu estandarra duen gidoi-orri batek filmaren minutu bateko iraupena du, gutxi gorabehera.



Aholkuak

Lanean hasi aurretik, gogora dezagun honako hauen arteko desberdintasuna:

- 1** Zer transmititu nahi dudan (idea motorra). Adibidez, natura ona da osasunarentzat.
- 2** Zer istorio asmatuko dut mezu hori igortzeko. Adibidez, nire familia eta ni hirian bizi ginen. Nire anaia gaixotu egin zen; arnasa gaizki hartzen zuen. Natur ingurura lekualdatu ginen. Nire gurasoek lanez aldatu eta granja bat jarri zuten. Landa-gunean bizitzen geratu eta konturatu ginen natura osasunarentzat ona dela, nire anaia sendatu baitzen.
- 3** Gogora dezagun irudi bidez kontatzeko idazten dugula, alegia, argazki bidez atera daitekeena.

GIDOI BAT IDAZTEKO ARAUAK



Letra: Courier new. Letra tamaina, 12.

- Lerro arteko tarteak: espazio bakarra, elkarriketatik deskripziora pasatzen denean ezik, kasu horretan espazio bikoitza. Eszena edo sekuentzi berri batera pasatzean, hiru espazio daude.

- Orrialde guztiek zenbakia izan behar dute, goian eskuinean. Gidoiaren luzera zenbatekoa den jakiteko modua da eta eszena bakoitza non dagoen azkar bilatzeko.



Erabilitako gidoi-eredua deskargatu,
Magia film laburra



Deskargatu Aizpea Goenaga gidoilarien
Sukaldeko sekretuak gidoia

KAI eta TOTÓ (batera)
Baiiiiiiii!

SEK 5. BARRUAN/ EGUNA.TRESNA ZAHARREN DENDA.

JAVIER (irribarre jatorrez eta "ea nola azaldu hau..." motako aurpegiarekin)

JAVIER

Lehenago mugikorrik ez genuenez, hau bezalako filmagailuak erabiltzen genituen grabatzeko. Grabatu eta, egiten ohi genuena zen pelikula, negatiboa (kartutxo sartzen du filmagailuan), sartu. Biribilkia bukatzean, laborategi batera bidaltzen genuen errebelatzeko eta positiboa ateratzeko. Positiboa eskuratzean (hartzen dute eta eskuz erakusten du), proiektagailuan ezartzen genuen eta horra hor... Jaimito txinatarren artean.

KAI (irribarre egiten du)

SEK 6. BARRUAN/ EGUNA TRESNA ZAHARREN DENDA. ESKANERRA.

Dendako izkina batean, Javier, eskaner eta kristalezko xaflak dituzten tamaina ezberdinetako kutxa zaharrak dituen egurrezko mahi bat dauka.

JAVIER (pozik beste mirari bat erakutsiko dielako) (TOTÓri kristalezko negatibo bat ematen dio eta KAIri beste negatibo handiago bat)

JAVIER

Hauek duela ehun urte baino gehiagoko argazkiak dira, kristalen gain eginak ikusten duzuenez. Negatiboa da.

KAI eta TOTÓ (kristalezko xafla begiratzen dute zeharrargi)

Nesken aurpegieta islatutako giro magikoa dago. Haien aurpegiengatik nabari da ulertezintasun eta ustekabearen

SEK 1. BARRUAN/ EGUNA. GELA LH 6.

IÑAKI, lehen hezkuntzako seigarren urteko irakasleak, bere ikasleei magiari buruzko lan bat egiteko koordinatuak ematen dizkie. ez dakigun zerbait daukaten orri batzuk banatzen die. arbelan magia hitza, handiki eta ortografia artistikoz idatzita.

klasea ikasle gutxitakoa da. ferra moduz eseriak daude eta bakoitzak elementu pertsonal batekin mahian.

IÑAKI (irribarre etsu eskura ematen fotokopiak)

IÑAKI

Egunon talde. Aste honetan
Magia hitza sartzen duen
erredakzio bat, ipuin bat,
istorio bat idatziko dugu.
Ados?

Magia edonon dago eta edonoiz
ematen da. Begiak ongi
irekitzea eta magia aurkitzea
besterik ez da helburua. Eta
horretarako, mundialagoa,
dibertigarriagoa izan dadin,
gero kalera joango gara
magiaren bila kalean. Ea
nondik aurkituko dugun. Zer
iruditzen zaizue?

Kamara KAI ETA TOTÓ-rengana doa biak haien baitan
bildurik eta ametsetan infinitura begiratzen ari
direla. ikusten dugu haien idazmahaiaren beranduago
ikusiko dugun zintzilikari linterna bat dagoela.

KAI (atsekabetuta)

Zer egin... ez dut magia ezagutzen.

TOTO (lasai eta esaten duenaren ziur)

TOTO
Ezta nik ere, baina lana ez
da magia egiteari buruzkoa,

MAGIA
Gidoia Blanca Zaragüeta eta Raquel Romero

6. bersioa
2022ko, MAIATZAREN 28an



Eszena edo sekuentziaren goiburua

Sekuentzia edo eszenen goiburuek deskribatzen digute ekintza non gertatzen den; letra larriz idazten dira, eta lau zati izaten dituzte:

1. Sekuentzia edo eszenaren zenbakia

Filmaren hasiera eta amaierarekin korrelatiboa da.

2. Eszena barrualdean edo kanpoaldean gertatzen den

"BARR." eta "KANP." barrualde eta kanpoalde adierazten duten laburduren bidez, aditzera ematen da ekintza kanpoan edo leku itxi batean izango den.


3. Eszena gertatzen den tokia

Informazio hori orokorra edo zehatza izan daiteke, gidoiaren behar berezien arabera. Lokalizazioa multzo handiago baten zatia denean, lehenengo multzo handia finkatzen da, eta, ondoren, txikia.

4. Ekintza egunaren zein momentutan gertatzen den adierazten du

Oro har, "GAUA" ala "EGUNA" den zehazten da, informazio horren erabilera nagusia baita definitzea ea eszena egunez ala gauzez errodatuko den. Hala ere, istorioak eskatzen duenean, ordu zehatzagoak ere erabil daitezke: "EGUSENTIA" edo "ILUNABARRA".

1. SEK. BARR./EGUNA. LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO GELA



Deskribapena

Deskribapena, ekintza ere deiturikoa, **kamerak ikusten eta entzute duena deskribatzen duten paragrafoak** dira. Ezin dira filmatu ezin diren esaldiak sartu, adibidez, pentsamenduak, sentimenduak edo asmoak.

Deskribapena **beti orainaldian idazten da**.

Iñakik, Lehen Hezkuntzako 6. mailako irakasleak, magiari buruzko lan bat egiteko koordinadak eman dizkie ikasleei. Orri batzuk banatu dizkie, baina guk ez dakigu zer den. Arbelean "Magia" hitza ageri da, handiz idatzita eta kaligrafia artistikoarekin.


14 ikasle dituen ikasgela da. "U" forman eserita daude, eta bakoitzak elementu pertsonal bat du mahai gainean.

Pertsonaiak

Elkarriketa multzo bakoitzaren aurretik, zeinek esaten duen zehaztu behar da. Pertsonaiaren izena **letra larriz idatzi behar da, alineatuta (ez zentratuta)** orriaren ertzetik 10.4 cm-tara.

Pertsonaiaren izena berbera izan behar da gidoi guztian zehar, nahiz eta pertsonaia horren izena istorioan zehar aldatu, edo beste pertsonaia batzuk beste izen batekin deitu.

Beti ez dira izen bereziak izaten. Pertsonaiaren bidez ere izenda daiteke. Adibidez: ANTIGOALEKO DENDAREN JABEA.



Elkarriketak

Elkarriketa-blokeak adierazten du aktoreek esan beharreko hitzak. **Letra xehez idazten da, alineatuta (ez zentratuta), orriaren ezkerreko ertzetik 6.8 cm-tako tartearekin eta eskuineko ertzetik 6.1 cm-ko tartearekin.**

Elkarriketa ahoz esan behar duen pertsonaiaren izenarekin azaldu behar da. Elkarriketa bakoitza paragrafo jarrai bat da, luzera edozein dela ere.

KAI

Zer egingo dugu... nik ez dakit magiaz ezer.

TOTÓ

Nik ere ez, baina idazketa magiari buruz da, begi magikoekin begiratzeari buruz.

6,8 cm



Oharrak

Oharra edo parentesia gidoiaren formatuaren elementu bat da, informazio gehigarria elkarriketa hori nola esan behar den jakiteko, adibidez, emozioa, tonua eta ekintza adierazteko. Jarraibide hori parentesi artean jartzen da, orriaren ertzarekiko lerrokatuta 8.6 cm-tara. Erabat letra xehez idazten da eta pertsonaiaren eta elkarriketaren artean jarri behar da, edo elkarriketa-blokeen artean. Oharrak oso noizean behin erabili behar dira, eta soilik beharrezko direnean.

KAI

(atsekabetuta)

Zer egingo dugu... nik ez dakit magiaz ezer.

8,6 cm

TOTÓ

(lasai eta esaten ari denaz ziur)

Nik ere ez, baina idazketa magiari buruz da, begi magikoekin begiratzeari buruz.

Trantsizioak

Trantsizioek eszena batetik bestera pasatzeko hainbat metodo adierazten dituzte, hainbat mozketak eta kateaketa mota. Letra larriz idazten dira, orriaren ezkerreko ertzetik 15.2 cm-tara lerrokatuta. Trantsizioak zuzenean egin daitezke, mozketak baten bidez, edo efektu optiko zehatz baten bidez. Honako hauek dira arruntenak: mozketak (mozketak zuzena), disolbatu edo kateatu (barreiaketa edo kateaketa) eta urtu (iraungipena).



GIDOIRA IRITSI ARTERAINOKO IDAZKETA-FASEAK

Gidoia hainbat urrats jarraituz osatzen da:

Sinopsia / Eskaleta / Elkarriketak

SINOPSIA. Gehienez 6 lerro erabiliz, pentsatu dugun istorioa kontatuko dugu.

Luis Xiri sukaldaritzaz-eskolako ikasleak motibazioa galduta dabilta eskola itxi dezaketela baitakite, inork nondik datorren ez dakien usain txar batengatik. Itxi ez dezaten, bururatu zaie espezia askotako plater asko egitea, usain txarra hori estali ahal izateko.

ESKALETA. Eszena bakoitzean zer gertatzen den deskribatuko dugu.

1. SEKUENTZIA. BARR./ EGUNA. SUKALDARITZA ESKOLAKO SUKALDEA

GASTONEN begiak ikusten ditugu (32 urte ingurukoa, taldeko zaharrena bera izango da), negarrez ari da gogotik. Jarraian, ALBERTOREN begiak ikusiko ditugu (Bolibikiako immigrante bat, indigena itxura duena), "PIRAS"-en begiak (gazte espabilatu eta mugitua), IKERNERENAK (herriko gazte bat, itxura osasuntsuarekin eta estilo modernoarekin), XALBARENAK (taldeko guapoa, surfista) eta ESTEFANIARENAK (sukaldaritzarekiko interesik ez duen gaztea, gurasoek behartuta etorri da, jatetxe txiki bat baitute). Malkoak aurpegitik dariola dituzte, begiak gorri-gorri; bitartean, labanak egurraren kontra egiten duen hotsa entzuten dugu.

3. SEKUENTZIA. BARR./ EGUNA. SUKALDARITZA ESKOLAKO SUKALDEA

Gogorik gabe sartu dira lanera. Eta denek nazka-keinu bat egiten dute, sukaldeko usain txarra dela eta.

{ Gidoia osatzeko, **ELKARRIZKETAK** gehituko ditugu eskaletan.

3. SEKUENTZIA. BARR./ EGUNA. SUKALDARITZA ESKOLAKO SUKALDEA

Gogorik gabe sartu dira lanera. Eta denek nazka-keinu bat egiten dute, sukaldeko usain txarra dela eta.

IKERNE

A zer kiratsa!

PIRAS

Jode, nagusi, kirats honekin osasungintzakoek ziur itxiko dizute eskola.

JUANTXO

Hortik usteltzen utzi duzuen zerbait da.

ESTEFANÍA

Eta flis-flis bat botatzen badugu?

ALBERTO

Lurrina?

JUANTXO

Lurrina sukaldean? Tontolapikoa alaena. Ekin, zuek hirurok garbitzera, eta zuek, sukalde-lanetara.

Denak alferkeria handiarekin eta kexuka, baina batzuk platerak prestatzen hasiko dira, eta beste batzuk, garbitzen.

GIDOI BATEN EGITURA



3 ekitalditan:

Planteamendua

Pertsonaia nagusien aurkezpena. Lehen minututan ikusleak filmean kokatuko ditugu.

Korapiloa

Protagonistari zerbait gertatzen zaio. Antagonistak istorioan sartzen dira. Ikusleen interesa piztu da, kateatuta dauzkagu; tentsioa sortu dugu, amaiera arte eutsi behar diogu interesari.

Amaiera

Filma amaitzeko eta korapiloa askatzeko gidoilariak eman duen irtenbidea. Amaiera itxi bat eduki dezake (irtenbidea jakiten da) edo amaiera irekia (ikusleei uzten die imajinatzen zer gertatuko den).

►► Ariketa

3 eszenatako film labur bat idatzi eta gidoi teknikoa egin:

Gaia “Bat ez datorrena”. Nola planteatuko dut? Lehenik, zer kontatu nahi dudan pentsatuko dut. Adibidez, “Ausarta izatea eta benetan pentsatzen duzuna egitea garrantzitsua da bizitzarako”. Bigarren pausoa, mezua igortzeko eta kontatzeko istorio bat asmatuko dut.

Bat ez datorrena film laburraren gidoirako egitura-adibidea:

1. ekitaldia


Eskolako talde bat arratsalde horretan zerbait egitea pentsatzen ari da, eta pertsonetako batek piper egitea proposatzen du. Taldeko bik jarraitu diote, eta hirugarrenak zalantzan jarri du egitekoa.

2. ekitaldia

Piper egin duten hiru pertsonak kalean dabilta noraeezan. Azkenean eskolara joatea erabaki duenari ikasgaia gainditu duela esan diote eta nota igo diotela eskolara joateagatik.

3. ekitaldia

Eskolara joan ez diren pertsonen udara ikasten pasa dute, ikasgaiak irailean gainditzeko. Gainditu duena udalekuetan begirale dabil hurrekin eta dirua izango du etxean eskatu beharrik ez izateko.



ESKALETA ETA STORYBOARDA


Filmaren planoak marraztuta. Praktika on bezain zaila da.
Ekipo guztiak eszena bakoitzean zer plano errodatu behar
diren jakiteko modua da.





Orain arte dakigunarekin, grabatu behar dugun film
laburraren gidoiaren idazketarekin hasiko gara.

Praktika dezagun ikasitakoa barneratzeko!



11. SEK.



**MATERIAL
TEKNIKO**



Grabaketa on bat egin eta editatu ahal izateko, oinarritzko material tekniko bat eduki behar dugu, horren bidez, kalitate onarekin ikusiko ditugu irudiak eta entzun ahal izango ditugu elkarrizketak eta ingurune soinuak. Gure gomendioa da honako elementu hauek izatea:

- Kamera
- Tripodea
- Monitorea
- Mikrofonoa kamerari konektatuta
- Kanpoko grabagailu bat eta, aukeran, kanpoko mikrofono bat konektatuta
- Memoria-txartelak
- Kargatutako bateriak
- Pertika
- Klaketa
- Argiztapena
- Argi islagailua (porexpan edo difusore zuria)
- Ordenagailua
- Edizio-programa
- Objektiboa garbitzeko zapia
- Errodajearen memoria egiteko koaderno. Script-aren koaderno
- Errodajearen argazkiak ateratzeko argazki-kamera



KAMERA

Grabazio ororen elementu tekniko funtsezkoa da. Irudirik gabe ez dago pelikularik.



Kamerak grabatutako irudiak memoria-txartel batean biltegitratzen ditu. Irudi horiek ordenagailu batera inportatzen dira editatu ahal izateko programa zehatz batekin, eta, filma editatuta dagoenean, artxibo digital bat sortzen da, eta hori proiektore digital zehatz batzuk dituzten zinemetan proiektu daiteke.

Kamera guztiek hiru zati nagusi dituzte: objektiboa, irudi-dispositiboa eta bisorea.

Objektiboak hainbat lente ditu, eta horietatik eszenan islatutako argia sartzen da.

Objektibotik sartzen den argia pelikulara zuzentzen da, eta horrek duen emultsioak erreakzionatu egiten du argiaren inpaktuekin.

Objektiboak eraztun bat du irudia enfokatzeko edo desenfokatzeko.

Kalitate oneko bideo bat lortzeko, kameraz gain, garrantzitsua da toki nahikoa duen memoria-txartel bat izatea, gainera txartel horrek azkartasuna izan behar du idazketa-abiaduran, datuen transferentzian eta bideo-abiaduran.



Aholkuak

Grabatzeko kamera prestatzeko garaian, honako hau izan behar dugu kontutan:

1

Memoria-txartelak grabatzeko espazio nahikoa izatea eta kameran jarrita egotea.

2

Bateriak kargatuta egotea. Gutxienez 2, erreserban edukitzeko.

3

Objektiboa garbia egotea. Zapitxoa pasa eta hala dela egiaztatu.

Kamera tripode baten gainean jartzen baldin baduzue, begiratu ea ongi nibelatua dagoen (burbuila zirkuluaren erdian), planoak okertuta atera ez dadin.

Kamera zer alturatan egon behar da? Normalena litzateke grabatu behar den pertsonaren edo pertsonen begien parean egotea.



		F32	F22	F16	F11	F8	F5,6	F4	F2,8	F2	
DIAFRAGMA	Irekiera txikia										Irekiera handia
OBTURADOREA	Sentsibilitate baxua	1/500	1/250	1/125	1/60	1/30	1/15	1/8	1/4	1/2	Sentsibilitate altua
ISO	Sentsibilitate baxua	ISO 100	ISO 200	ISO 400	ISO 800	ISO 1600	ISO 3200	ISO 6400	ISO 12800	ISO 25600	Sentsibilitate altua



Bisoreak erakusten du lentea hartzen ari denaren bideo-irudi txiki bat, eta horrek gida-lana egiten digu. Kamera digitalek LCD pantaila bat ere daramate. Gaur egun, monitore bat erabiltzen da, irudia handiago ikusten denez, erosoagoa delako.


Kameraren barruan **obturadorea** aurkituko dugu, argia dispositibo fotosentsibera iristeko behar duen denbora kontrolatzen duen gailua da (argazkilaritza kimikoan erabiltzen da, pelikula eta argazkilaritza digitalean, aldiz, sentsorea).

Diafragmaren bidez eta jartzen diogun "irekieraren" arabera, erregulatu ahal izango dugu pelikulak zenbat argi jasotzen duen. Adibidez, argiaren indarra oso handia den egunaren orduren batean ari baldin bagara grabatzen, diafragma ixterakoan lentearen zati bat tapatuko genuke, pelikulara iritsiko den argi-kopurua murriztuz. Eta eszena bat argi gutxirekin grabatzen ari baldin bagara, diafragma hori ireki beharko dugu.

ZELULOIDEZKO PELIKULATIK MEMORIA TXARTELETARA



Zinema-formatuak

- 1889an, Kodak enpresak argazkientzako emultsioz estalitako zeluloide-pelikula bat patentatu zuen; bat-bateko argazkilaritzaren eta zinematografiaren hasiera izan zen.
- Hauexek dira formaturik erabilienak: 8mm, super 8mm, 9.5mm, 16mm, 35mm eta 70mm.




Memoria-txartelak*

- Gaur egun, SD eta microSD txartel ezagunenak SDHC eta SDXC dira. SD txartelen arteko desberdintasun nagusia biltegitratze-gaitasuna da. 4K formatua duten bideoak grabatzen baldin baditugu, ziurrenik SDXC txartel bat beharko dugu, 2TB gaitasuna ezin hobe baina edukiak biltegitratzeko. Gainera, SDXC txartelek exFAT artxibo-sistemak erabiltzen dituzte artxibo handiak maneiatzeko. Alderatzuz, FAT32 artxibo-sistemetan beste txartel mota batzuk erabiltzen dira, eta horien tamaina 4GBkoa da.
- Erabiltzaile arruntarentzat nahikoa izango da 32GB edo 64GBko txartel bat, azken horiekin ehunka nahiz milaka argazki eta bideo-klip graba baitaitezke.



** Biltegitratze formatuen bilakaera hain aldakorra izanik, lerro hauek informagarri bezain galkorrak izan daitezke.*





SOINUA

Soinua funtsezkoa da soinuaren film batean. Aktoreen elkarriketak argi ez entzuteak eta ulertzeak filmaren amaierako emaitza izorra dezake.

Kamera digitalek mikrofono bat daramate, ingurune soinuak grabatu ahal izateko. Baina elkarriketak grabatu eta garbi entzuteko komeni da zuzendu daitekeen mikrofono bat erabiltzea, guk nahi dugun lekuan jartzeko.

Zenbait mikrofono mota:

Kanoi-mikrofonoak, kontrolatu gabeko espazioetan elkarriketak grabatzeko, adibidez, kalean. Pertikan jartzen dira, plastikozko estalki batean sartuta daude, eta, haizea dagoenean, estalki hori bereziki "peluxe" ilea duen funda batekin estaltzen da. Modu horretan, neurri handiagoan, saihestuko da haizearen soinua.

Korbata-mikrofonoak plano irekietan erabiltzen dira, pertika erabili ezin dugunean.



Informazio gehiago



Aholkua

Grabatu aurretik, garrantzitsua da ekipoa probatzea. Grabatzerakoan, kontzentratuta egon behar dugu ongi entzuteko, eta zorrotzak izan behar gara taldean erabateko isiltasuna eskuratzeko.

Merezi du mikrofono eta grabatzaile digital bat izatea.



ARGIZTAPENA



Argirik gabe ez dago irudirik.

Horregatik garrantzitsua da jakitea argi motak zein diren eta nola argiztatu behar den pertsona bat, objektu bat edo dekoratu bat, eguna ala gau izatearen arabera.

Begirada toki argiztatuenera bideratzen da, tonu argienera toki ilunetara baino lehen.



Argiaren norabideak pertsonaiekiko eragiten duen efektua.

TONUA ETA KOLOREA

Objektu batek xurgatzen edo atzera botatzen duen argi-kopuruaren arabera, irudian tonu-balio batzuk emango ditu; zuritik beltzerainokoak izango dira, hainbat gris tonutatik pasata.


ARGI MOTA

Naturala. Eguneko argitasunak eskaintzen duen argia.

Artifiziala. Argiztapien artifizial batek eskaintzen diguna.

Zuzeneko argiak objektuetan itzalak sortzen ditu, eta horiek proiektatutako itzalak.


Argi lausoa barreiatzaile baten bidez lortzen da, eta ez du itzalik egiten, modu uniformean banatzen baita. Giro-argiaren efektu naturala imitatu edo indartzen du.



Alboko argiztapena (argi-fokua bi aldeetako batean dago)



Zenitala (goitik)



Nadir argiztapena (behetik)



Kontrargia (argia pertsonaren atzean dago)



KOLOREEN ERABILERA ZINEMAN

Kolore bakoitzak efektu animiko bat eragiten du.

Kolore beroak:

Gertutasuna adierazten dute:




- **Zuria:** argiaren eta argitasunaren kolorea. Garbitasuna, purutasuna, bakea, ontasuna eta lasaitasunarekin erlazionatzen dugu.
- **Horia:** eguzkiaren kolorea da eta atentzioa deitzen du distirarengatik. Alaitasuna, bizipoza eta dibertsioa ekartzen dizkigu gogora. Aberastasunarekin ere erlazionatzen da, urrea horia baita.
- **Laranja:** tonalitate leunek sentipen atsegina transmititzen digute, familia giroa eta erosotasuna. Bestalde, oso kolore ikusgarria denez, arriskuak seinaleztatzeko eta atentzioa deitzeko erabiltzen da.
- **Gorria:** odolaren eta suaren kolorea da. Ekintza, ausardia, grina eta dinamismoarekin erlazionatzen da. Eszitazioa, agresibitatea eta mugimendu sentazioa transmititzen du. Atentzioa deitzeko eta arriskua adierazteko ere erabiltzen da.

Kolore hotzak:

Efektu lasaigarria transmititzen dute. Oro har, kolore hotzak dituzten espazioek txikiagoak eta urrunagoak dirudite.



- **Berdea:** naturaren kolorea da, lasaitu eta erlaxatu egiten du. Esperantza, osasuna, bizitasuna eta segurtasunarekin ere erlazionatzen da.
- **Urdina:** zeruaren eta itsasoaren kolorea da. Handitasun handiko gauzak, autoritatea, leialtasuna, duintasuna eta infinitua sinbolizatzen ditu. Argia denean, erlaxatu egiten du eta freskotasuna, segurtasuna eta konfiantza adierazten ditu. Iluna denean, tristea gertatzen da.
- **Morea:** ingurune dotore eta luxuzkoekin erlazionatzen da.
- **Grisa:** kolore neutroa, metalezkoa. Kolore eza, tristura eta txirotasuna ere iradokitzen ditu.
- **Beltza:** bi esanahi nagusi ditu. Alde batetik (gure gizartean), misterioarekin erlazionatzen da, ez-jakintasunarekin, beldurrarekin, bakardadearekin, iluntasunarekin eta heriotzarekin. Baina botere, nagusitasun, dotorezia eta soiltasunarekin ere erlazionatzen da.



Kolore bakoitzaren tonu-intentsitatearen balioak ere eragin dezake: balio altuek, argiztatuek, hau iradokitzen dute: handitasuna, urruntasuna, hutsa... Balio baxuek, argi gutxikoek, gertutasuna iradokitzen dute, babesia.

Atzealde argiztatu eta argiek koloreak intentsifikatzen dituzte, alaitasun-giroa ematen dute, eta objektuek garrantzi handiagoa hartzen dute. Atzealde ilunek koloreak ahultzen dituzte; tristatu egiten dituzte objektuak, barreiatu egiten dira, eta garrantzia galtzen dute.

Koloreen tenperatura kelvin graduekin neurtzen da.

Adibidez:

- Kandela-argiak **1.900 K** kelvin gradu ditu.
- Ilunabar batek **2.000 K**
- Lanpara halogeno batek **3.200 K**
- Eguzki-argiak **5.500 K**
- LCD pantaila batek **7.500 K**
- Tximista batek **30.000 K**

Garrantzitsua da plano bakoitzean zurien balantzea egitea, kamerak argia hartu dezan eta argazkilaritza-zuzendariak argiztapen jarraitua lor dezan filmaren eszenatan.




(KIT-KAT)

Gidoia amaituta, beharrezko ekipo humanoa, material teknikoa, jantziak, dekoratuak, atrezzoak, makillajea eta ile-apainketa prest ditugu.

Tentsio-, urduritasun- eta neke-momentuak gainditzeko beharrezkoa da jarrera arduratsu, lankidetzazko eta positiboa izatea zailtasunen aurrean.

Martxan jarriko gara film laburra errodatzeko!

12. SEK.



FILM LABURRA
ERRODATU



AURREPRODUKZIOA

Antolakuntza pausoz pauso:

1. **Ekipoaren funtzio-banaketa.** Eszena bakoitzerako funtzioak bana ditzakegu; norbaitek sail bat baino gehiago ere proba dezake*.
2. Aktoreen kasting bat egingo dugu. Definituko dugu zeinek antzeztu nahi duen.
3. **Talde tekniko eta artistiko guztiak gidoia irakurriko du.**
4. **Gidoiaren desglosea egingo da sailaren arabera.**
5. Lokalizazioen bilaketa egingo dugu. Non errodatuko dugu.
6. Dekoratuaren prestaketa. Eszenetarako espazioa dekoratu eta egokituko dugu.
7. Planoak, kamera eta argiztapena prestatuko ditugu.
8. Pertsonaien jantziak definituko ditugu.
9. Pertsonaien makillajea definitu dugu.
10. Entseguen egutegia finkatuko dugu. Elkarriketak buruz ikasita eraman behar dira.

** Komeni da zuzendari lanetan beti pertsona berbera izatea edo biren artean egitea, eszena guztiei koherentzia handiagoa emateko.*

Deskargatu
Desglose-orriak



ERRODAJEAN ZEHAR

1. Kanpoko disko gogor batean gordeko dugu grabatutako irudien kopia bat edo bi.
2. Zaindu RACCORDA EDO JARRAITUTASUNA!
3. Eszena, plano eta tomen zenbakiak bat etorri behar dira klaketan eta scriptaren orrian.
4. Irudiak zehaztasun handiz ordenatu eta izendatu behar dira sekuntzia-, plano- eta toma-ordenaren arabera.
5. Errodaje egun bakoitzaren bezperan, pertsona bakoitzari lan-ordena emango zaio, mundu guztiak jakin dezan zer errodatuko den hurrengo egunean.



Lan-ordenaren
eredua deskargatu



PLANOA PRESTATU

1. Erabaki kamera tripode gainean jarri ala ez.
Tripode gainean jarri behar bada, egiaztatu tripodea eta kamera ongi orekatuta daudela. Planoa okertuta egotea saihestuko dugu.
2. Egiaztatu errodajea hasi aurretik, kamerak eta soinuak grabatzen dutela.
3. Egiaztatu plano ongi enfokatuta dagoela:
Nola dakigu plano ongi enfokatuta dagoela?
Automatikoki, kamerak fokua detektatzen du, baina ziurtatzeko egiaztatuko dugu zoom egitean lehen plano batera enfokatuta dagoela.
Eskuz: zoom egin lehen plano batera arte, enfokatu eta egiaztatu pentsatutako planora bueltatzean enfokatuta dagoela. Kameran dagoen pertsonak kontrolatu behar du hori.
4. Enkoadratu (errepasatu enkoadraketari buruzko aipamenak 71. orrialdean)
5. Zuriaren balantzea egin (AWB), dekoratua aldatzen dugun bakoitzean: argi naturala edo argi artifiziala.
6. Egiaztatu ondo entzuten dugula aurikularretatik eta grabaketaren bolumen maila ondo dagoela (maila-markatzaileak ez daitezela gorritara iritsi).

ENTSEGUA (ENTSEGUA DENEZ, EZ DIOGU KLAKETARI EMAN BEHAR, BAINA KLAKETAREKIN ERE ENTSEATU BEHAR DUGU)

Entsegua errepikatuko dugu beharrezkoa den guztietan, ekipo artistiko eta tekniko grabatzeko prest egon arte.





KONTUAN HARTU BEHARREKOA

Zuzendariak grabaketa ontzat ematen badu, hurrengo eszena edo planora pasako gara.

Gidoian ikasi dugun bezala, Sekuentzia edo Eszena aldikoan bat izango da.

Aldiz, eszena barruko planoak zuzendariak planifikatutakoak beste egon daitezke.

Eta eszena bakoitzeko tomak ekintza errepikatzen den aldien arabera izango dira.

Scriptak idatziko du zenbat toma egin diren eta zein den ona. Era berean, dekoratuaren eta jantzien argazkiak aterako ditu raccord edo jarraitutasun-akatsak saihesteko.

Gogora dezagun klaketa eguneratzea.

Grabaketa baten hasiera ez da izan behar ezin bestean lehen eszena. Errodajearen planifikazioaren arabera hasiko da.

Ekipo artistiko eta ekipo teknikoak, errodatzeko prest?

ERRODATZEKO PROTOKOLOA

Zuzendari-laguntzaileak isiltasuna eskatuko du, eta mundu guztia isilik dagoenean, honako hau esango du:

Kamera!... eta kameran dagoen pertsonak erantzungo du: **grabatzen**

Soinua!... aurikularrekin dagoen pertsonak erantzungo du: **grabatzen**

Klaketarekin dagoen pertsonak, aurrez, eszena, dagokion plano eta toma idatziko ditu; kameraren aurrean jarriko du grabatzeko, eta honako hau esango du, adibidez:

1. sekuentzia

1. plano

1. toma

Eta... klaketa kolpatuko du. **Klak!**

Klaketa kolpatu duen pertsona planotik aterako da, eta jende guztia bere postuan dagoenean,

Zuzendariak honako hau esango du: **Ekin!** grabatzen hasteko eta **Moztu!** grabaketa amaitzeko.

Adi! Inor ez da mugituko, ezta aktoreak ere, **Moztu!** esan arte.

13. SEK.

POSTPRODUKZIOA

Irudi guztiak grabatuta, gordeta eta segurtasun kopia bat eginda daukagu?


Ongi, bada 4. sekuentzia berrikusiko dugu editatzen hasi aurretik.

Egin beharreko urratsak:

- **Irudi eta soinuaren edizioa.**
- **Kreditu-tituluen edizioa.**
- **Egonez gero, sala-efektuak sartu:** irudia indartu eta zuzeneko soinua osatzen duten soinua, erroda-jean grabatu ez baditugu behintzat.
- **Musika sartu.**
- **Filma nahi dugun formatura esportatzea, adibidez H.264 formatura, eta guk nahi dugun doikuntzarekin, adibidez, YouTube, Vimeo, 1080p etab.**

Zorionak honaino iristeagatik!

Eta luzamendurik gabe, taldean idatzi eta grabatu dugun film laburra editatzen hasiko gara.



Ekin gogor!



KREDITU TITULUAK

Film bateko kreditu-tituluak garrantzitsuak dira errodaje-taldeen izenak agertzen baitira. Filma ahalbidetu duen ekipo humanoa ikus daiteke osotasunean.

Ikusi ahal izan dugun bezala, “hasierako” eta “amaierako” tituluak daude, eta izenek dioten bezala, filmaren hasieran eta amaieran azaltzen dira. Titulu horien forma eta tipoa desberdina da film bakoitzean, film eta zuzendari bakoitzak behar desberdinak baititu.

Hasierako tituluetan sailetako buruak eta aktore nagusiak azaltzen dira.

Amaierako tituluetan, aldiz, ekipo artistiko eta humano guztia azaltzen da. Kanta edo musika pieza ez originalak baldin badaude, hor azalduko dira izenburua eta ekoizpen-etxearen izena dutela. Materialak eta zerbitzuak alokatzeko enpresen logotipoak ere azalduko dira, eta, amaieran, eskertzak, filmean azaltzen diren tokiak, ekoizpen-urtea eta copyright-a, baldin badago behintzat.

Filmaren kredituak pentsatzea sorkuntza-prozesuaren zatietako bat da. Nahi beste konplika zaitezke.

Jar dezakezu, besterik gabe, ekipoen izenak fondo beltz baten gainean, Woody Allenek egiten duen bezala, eta horrek berezi bilakatzen ditu, beti tipografia berbera erabiltzen baitu.

Edota konplika zaitezke askoz gehiago, David Fincher zuzendariak (*SuperWoman*, *Batman*) edo Dan Perry (*Star Wars*, *Taxi Driver*) titulu diseinatzaileak egiten duten bezala.


Edonola ere, kredituek filmaren ikusmen-estilo berbera jarraitu behar dute, ongi integratu behar dira, osotasunari aberastasun handiagoa emateko.

Artofthetitles-en askotariko adibideak ikusi ahal izango dituzue:

<https://www.artofthetitle.com/titles/>

Lehen klaketak liburu honetako ariketa guztiekin egin duzun bezala, hainbat aukera probatzea eta aukeratzea da kontua.

Adibidez, **Magia** film laburrean, erabaki genuen errodajearen argazkiak eta ekipoaren argazkiak fondo beltz baten gainean jartzea.





ETA IRITSI DA **FILMAREN ESTREINALDIA!**

Filma amaituta dagoenean, garrantzitsua da estreinaldia publikoaren aurrean egitea.

Merezi du ongi egokitutako areto bat antolatzea, kalitatezko proiektzio eta soinuarekin.

Gure filma publikoari erakusten diogun unea momentu magiko bat da. Urduritasun handia izaten dugu eta sorkuntza-prozesuan gertaturiko gauza asko ulertzen ditugu, baina, batik bat, zentzua hartzen du ikasketa guztiak eta filma denon artean egin izanak.

Egiatzatu ahal izango zenuten talde-lana funtsezkoa dela. Parte hartu duten pertsona guztiak ezinbestekoak izan dira filma egiteko garaian eta baita haien esperientziak ere, hau da, bakoitzaren pozak, ezustekoak, adostasunak eta desadostasunak, helburu bakar eta berezi hori lortzeko garaian.

Txalorik bero eta sentikorrena zuen filmentzat.

LORTU DUZUE! ZORIONAK

APUSTUA EGIN DUZUELAKO, ARRISKATU ETA ZINEMA EGITEA LORTU DUZUELAKO

ESKERRIK ASKO

Zuen esperientzia konta diezagukezue Kultura Eskolan (<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/kultura/programas/kultura-eskola/catalogo-de-propuestas>) edo ikertze@ikertze.net helbidean.

AIZPEA GOENAGA

GIDOLARI, ZUZENDARI ETA AKTOREA



Lehen Klaketak, sorkuntzarako giltza bat da, ikus-entzunezko hizkuntzaren bidez adierazteko abenturan murgiltzeko aukera paregabea. Eta ez dira sormena zein bikaina den azalduko duten hitz hutsak. Ez. Benetako sortzaileak izateko tresna bat da. Arriskatzeko, pentsatzeko, gozatzeko eta egiten ikasteko, erabakitzeke, taldean lan egiteko, gure lana ikusten dutenen erreakzioaren gogobetetasuna edo larritasuna partekatzeke eta sentitzeke bultzada bat da. Baina, erratzeko/tronpatzeko eskubidea askatasunez bizi ahal izateko tresna ere bada.

Gure egunerokoan irudi asko ikusten ditugu, telebista, zinema, mugikorrean ikusten ditugun bideoak, iragarkiak, den-denek zerbait kontatzen digute. Ez gara konturatzen zenbat informazio iristen zaigun irudien bidez, denek istorio bat kontatzen digute eta zirrara sortzen saiatzen dira. Irudi pila horrek guztiak gugan eragina du, eta ia nahi gabe ikasten dugu kontatzeko modu bat. Oso ohituta gaude lehen planoak, elipsiak, plano orokorrak, urtuak, musikak, efektu bereziak... ikustera.

Gida honek erronka bat planteatzen digu. Parte hartzeko eta aktibo izateko erronka, zer kontatu nahi dugun erabakitzeke erronka, eta horrek esan nahi du gure interesak entzun behar ditugula, edo benetan mugitzen gaituen hori ezagutu. Taldearekin kontrastatzea, akordioak lortzea eta baita lan egitea ere. Lan asko. Kontatu nahi duguna ikertzea eta horrek aztertzea ere esan nahi du, eta, batez ere, nola kontatu nahi dugun erabakitzen hastea. Eta hor iritsiko dira zalantzak, bide desegokitik joatearen sentsazioa, edo amore emateko gogo bizia. Edozein sortzailek bizi eta sufritu du sentsazio hori. Baina tematu beharra dago, eutsi goiari!

ZINEGILEEN BEGIRADA



Behin, presio handiko bilera batean, norbaitek esan zuen, ideia bat daukat, eta lankide batek erantzun zion "ideia asko daude eta denok ditugu, baina orain bururatu zaizun ideia hori egokia al da, interesatzen zaiguna da, eta badakigu nola aurrera eraman?". Egun horretan ikasi nuen benetan balio duten ideiak egiten direnak direla, eta partekatzen direnak.

Era berean, oso garrantzitsua da egingo dugun proposamenean gure lana berezia bihurtuko duen "halako zera hori" egotea; ikuspuntu pertsonal hori, gure historia kontatzeko, filmatzeko, interpretatzeko, argazkirako, argiztatzeko edo editatzeko modu desberdin hori.

Segi horren bila!

Baina kontuz! Gauzak ez dira nekerik gabe ateratzen, zorrotzak izatea komeni da, eta lortuko dugun emaitzak, gure ideiatik, ahalik eta gertuen egon behar du. Gozatzea, tematzea eta lan egitea tokatzen da. Nekea, gogogabetasuna eta zailtasunak etorriko dira, baina ez dago poztasun handiagorik sormenaren senari jarraitzea baino, eta zerbait berezia egitearen askatasuna sentitzea, ondoren publikoari erakustea eta txaloak jasotzea (eta kritiketatik ikastea). Mugikorrari buelta eman eta... hasi sortzen!!!

TELMO IRURETA

AKTOREA

Zer den zinea niretzat? Ikuslea hezteko, kulturizatzeko, entretenitzeko edo aspertzeko tresna oso boteretsua. Filmak asko egin dira, bana liburuekin bezala gertatzen da, asko ikas dezakezu... edo ezer ez. Eta batzuetan ez dago ikasi beharrik, momentu on bat pasatzea nahikoa zaigu, baina irakurketa eta autore batzuk denbora-galtzea ekartzen dute, momentu on bat pasatzeko aukera eskaintzea ere handi geratzen baitzaie. Nik zerbait kontatzen didaten testuak maite ditut, hunkitzen edo dibertitzen nautenak. Ba pelikulekin berdin. Ez naiz ikusle erraza, lehenengo hamar minutuetan engantxatzen ez banaute... burua joan egiten zait. Deskonektatu egiten dut nahi gabe. Eta konturatzen naizenerako, ez dakit zer ikusten ari naizen. Pentsamenduak nik idatzi nahi ditudan istorioetara egiten dit ihes. Zerbait kontatzeko eta norbait hunkitzeko edo dibertitzeko gogoak bultzatuta. Sortzea atsegin dut eta sortzen dudanetan deskubritzen naiz hezitzaile-laretan. Magisteritza eta pedagogia ikasketak burutu nituen, baina askoz motibagarriagoa deritzot alderdi artistiko batetik irakasteari. Ikus-entzunezkoek duten magia horri eskutik helduta. Lan handia da, eta dirua eta pazientzia behar dira. Eraitza zein izango den jakin gabe gainera. Une batzuetan oso gai sentitu eta gogotsu arituko zara, beste batzuetan, ordea, hainbeste esfortzuz mereziko ote duen zalantzan jarriko duzu. Agobiatuta. Nekatuta. Eta martxan duzun proiektua bertan behera uztearekin fantaseatzen hasiko zara. Proiektu orok du bere zailtasuna, baina lorpen bakoitzarekin... buah, ze gustura geratuko zaren! Zinea artea da. Beno, zine ona. Zer den zine ona? Hor ez naiz sartuko. Gutxi dira niri gustatzen zaizkidan filmak, baina gustatzen zaizkidan horiek asko gustatzen zaizkit. My favourite one: The Sound of Music.



ICIAR BOLLAIN



ZUZENDARIA ETA GIDOILARIA

Nondik datoz filmak?

Batzuetan, hasieran, ideia bat izaten da. Sarritan, irudi bat edo entzundako zerbait da. Nire lehen filma, aurretik, idatzitako istorio bat izan zen eta, horren aurretik, esaldi bakar bat, Sevillako lagun baten pasadizo batetik ateratakoa: "5 euroko bularretako bat nuen...". Hurrengo egunean, paper zuri baten aurrean jarri nintzen, eta esaldiari jarraipena eman nion: "... eta hura askatzen inoiz ikasi ez zuen mutil-lagun bat". Hortik aurrera, pertsonaiak, egoerak, istorio bat asmatu nituen. Orduko 30 edo 40 orrialde haietatik atera zen, gerora, zinema-gidoi bat. Idatzi ahala ikasi nuen idazten, ez nuelako aurretik inoiz egin... Eta, azkenean, film bat bilakatu zen: *Hola, ¿estás sola?*.

Nire bigarren filma, *Flores de otro mundo*, irudi batetik sortu zen: karibetar emakume bat Gaztelako landa baten erdian. Emakume hark azaltzen zuen, telebistako erreportaje batean, etxekoak atzean utzi zituela, gure artean bizi berri bat hasteko.

Hirugarrena erantzunik gabeko galdera askotatik etorri zen: Zergatik daude beren emazteak maite dituztela esan eta haiek gaizki tratatzen edota hiltzen dituzten gizonak? Zergatik egoten dira urtetan emakumeak gizon horiekin?

Bizi dugun mundua eta bertan bizi diren pertsonak ulertzeko behar horretatik sortzen dira istorioak. Horretarako bakar-bakarrik behar dugu gogoa izatea, intuizioa eta zurekin istorioak kontatzen parte hartu nahi duten kideak. Niretzat zinema

mundua ulertzea eta hori jendeari helaraztea da. Ikuslearekin "hitz egitea", topatzen ditudan galderak eta erantzunak partekatzea. Ez da askoz gehiago behar. Klaketa eta ekin...



JOSUNE LASA

FIGURINGILEA

Gogoan dut, haurtzaroan, oso noizean behin zinemara joaten ginela eta zer nolako zirrara eragiten zidaten filmek: izugarrizko pena ematen zidan bizitako mundu eta bizitza haien magia amaitzea. Etxera iristean, anaia-arrebekin, tartetxo bat bakarrik geratzen errepasatzeko, behin eta berriz, nola hasten zen, nola jarraitzen zuen eta zoritxarrez nola AMAITZEN zen ikusitako filma.

Sarritan egiten nuen beste gauzetako bat zen, filma asko gustatzen zitzaidanean, pelikulako protagonista bezala jantzita joaten nintzen hurrengo egunean eskolara, ahalik eta antzekoena, hori bai, nire arropak ahal bezala konbinatuta! Ikustekoa izango zen beste garai batzuetako filmak zirenean!

Esan beharra dago amak asko laguntzen zidala; nahi nuen bezala jantzita joaten uzten zidan... Helduaroan, eskertu izan diodanean nirekin hain irekia izatea, honela erantzun dit: "Ai, Josune! Ez zen batere erraza zuri kontra egitea... HAIN ZINEN ASTUNA!!!"

Hainbestekoa izan da zinemak nigan izan duen eragina txikitatik, ezen horretan aritu naizela lanean, nagusiki, jantziak diseinatzen. Dekorazioa ere egin dut, eta film labur bat zuzendu: haren errodatearen oroitzen paregabeak ditut...



Dena den, nigan eragin handiena izan zuen filma Alain Tanner zuzendari suitzarraren *Salamandra* izan zen.

Nik Bartzelonan ikasten nuen eta gogoan dut Kataluniako Rambletako Alexis zinemara joan nintzela nire mutil-lagunarekin. Oso gustuko nuen mutila (ziurrenik horrek eragina izango zuen egun hartan gertatutakoarekin), eta atera nintzenean, jakin nuen oso egun garrantzitsua izan zela niretzat, oso ongi jakin gabe zergatik.

Ordura arte ikusitako filmak gustatzen zitzaizkidan (nire aitak eta anaia-arrebek oso txartzat jotzen zituztenak ere), baina beste batzuen bizitza kontatzen zuten, eta ni haiekin batera maitemintzen nintzen, sufritzen nuen edota tokatzen zena, baina *Salamandra* ikustean, beste pelikula mota bat deskubritu nuen, beste mota bateko filmak ere egin zitezkeela, ni bezalako jendeaz hitz egiten zutenak, nire jakin-min, desio eta beldurrez mintzo zirenak. Bizitzako gauza arruntak kontatzen zituen, sinpleak, baina garrantzizkoak. Esango nuke, hain zuzen, gauza txikiez hitz egiteagatik, hori bai, oso ondo kontatuta, ordura arte ikusitako filmak baino garrantzitsuagoak zirela.

Eta egun horretan istorio horiek kontatu nahi nituela jakin nuen, edota gutxienez kontatzen lagundu nahi nuela.



Urte batzuk beranduago, hainbat ikasketa hasi ostean (Biologia, Historia, Filosofia) eta askotariko gauza askotan lan egin ostean, Donostian, moda diseinuan lanean ari nintzen, eta halako batean deitu zidaten galdetzeko ea film bateko jantziez arduratu nahi ote nuen. Mikelen heriotzean zen filmaren izenburua... Imagina dezakezue zer erantzun nuen...

Urte dezente beranduago, Alain Tanner zuzendaria ezagutzeko zortea eta haren Ginebrako etxean bazkaltzeko aukera izan nuen...

Lotsa apur batekin kontatu nion zein garrantzitsua izan zen niretzat bere *Salamandra* filma (eta Mexikon eta Frantzian ikusitako bere beste lan batzuk, ez baitzuen zinema oso komertziala egiten, eta ez zen hain erraza haren filmak ikustea), eta hark, bere filmetako pertsonaiek egingo luketen bezala, irribarre egin zidan, janari greziarra zuen plater bat eman zidan eta beste zerbaitez hitz egiten jarraitu zuen.

JULIA JUANIZ

MUNTATZAILEA

Gidoia irakurri eta, zuzendariarekin eta produktorearekin hitz egiten dut filmari buruz.

Niretzat ez dago ezer sortzaileago landu gabeko materiala ukaitea baino. Sekuentzia bakoitzeko plano eta hartze ezberdinak hartu eta hortik aurrera zuzendariaren lankidetzarekin erabakiak hartu sekuentziak lantzeko. Pentsatzea ea aktorearen plano labur bat egin, edo erdi plano bat, plano jeneral bat, etab.

Filmaketako bigarren egunik aurrean, egiten ari naizena erakusten dut aurremontaketa bat lehenbailehen ukaiteko eta zuzendariak ikusi dezan zer moduz doan dena.

Ez dut atsegin jendeak niri esatea nola pentsatu duen sekuentzia zuzendariak, nahiago dut sekuentzia neuk egin eta, nik egin dudana eta zuzendariak irudikatu duenaren artean batzuetan ona den nahaste bat ateratzen da. Beste batzuetan zuzendariarena da onartuta, eta beste batzuetan nirea. Denbora ukan behar da pentsatzeko, lan honek hausnarketa eta saiaketa eskatzen baitu. Muntatzaileek soinuengan bereziki sentikorrak izan behar dute esaten ari denaz ohartu ahal izateko eta plano egokienak hautatzeko narrazio zinematografikozko une bakoitzarentzat.

Soinu eta musikaren garrantzia muntaketa zinematografikoarentzat landu behar da, irudietako muntaketan laguntzeko eta denbora eta erritmoa manipulatzeko.

Zentzu horretan uste dut ezinbestekoa ez den material guztia kanporatu behar dela, beharrezkoa dena utziz eszenak erraz ulergarriak izateko ikuslearentzat era egitura bikaina egiteko.

Muntaketako lanak eskatzen du ikusleen buruan jartzea ikusi behar dutena zehazki eskaini ahal izateko.

Muntatzaileok eskura ditugun tresna guztiak erabili behar ditugu ahal dugun lanik hoberena burutzea laguntzeko. Horregatik arau garrantzitsuenetakoa nekaezintasuna da, zinez bilatu ahal izateko filmatutako materialean muntaiazko arazoak dituzten sekuentzietan, aukera gehienetan konponbide interesgarriak aurkitu ahal baitira, imajinatu ahal gabekoak aipatutako materialerako lehen hurbilketa batean.

Zure sena, sentikortasuna, irudipena, esperientzia, sormena, bizipenak, oso garrantzitsuak dira, baina sekreturik handiena lana da.

Niretzat muntaketa hutserako jauzi bat da aurreko eredurik gabe, beti saiatzen baitut dakidanaren ezberdina den zerbait egitea. Baina, aldi berean, sortze-erronka handia irudikatzen du



KARMELE SOLER

MAKILLATZAILEA



Zinemako makillajea ez da beti ikusten, baina sumatzen da.

Zinemako makillajearen magian pentsatzean, ia beti pentsatzen dugu makillaje efektu berezietan: munstroak, gizotsoak, buru suntsituak... Baina badago sinpleagoa irudi duen magia bat, askotan jendea konturatu ere egiten ez dena, eta hala izan behar da. Magia hori da nire gaia.

Lan eskergabeagoa irudi du, ez baita makillatzeko efektu bereziak bezain nabarmena, baina filmaren prozesuko atal oso garrantzitsua da. Helburua pertsonaia errealistak lortzea da, non makillatzea istorioak ulertzen laguntzen duen narrazio-elementu bat baita. Denbora eta aro igarotzeak, pertsonaien egoera, gogo-aldatea, izaera ere... definitzen ditu.

Lan mota hau, alegia, aktore bati antza aldatzea ikuslea konturatu gabe, horixe da nire gogokoena. Sinesgarritasuna ematea pertsonaiei bi ordu edo gehiagoko makillatze prozesu batekin eta ikustean ikusleak ez jakitea zertan datzan antzaldaketa. Eta hala ere identifikatu ahal izatea irudikatzen duen pertsonaiarekin.

Makillatze eta ile-apainketako lana laguntza ezinbestekoa da aktoreentzat haien interpretazioak burutu ahal izateko. Behar dute, adibidez, gaixoarena egiteko... edo mozkorrarena... tristeena... negar egitea ere lagundu dezakegu.

Gauza oso garrantzitsu bat eta zailtasun asko eragiten dituen makillatze bat diseinatzean da kronologia eza filmatzeko prozesuan. Horrek

eragiten du, adibidez; ile luzera aldaketak, bizarra ukaitea edo ez, beltzaran eta zurbilen arteko aldaketak... aldaketa itzulgarriak izan behar izatea, kendu eta ezartzekoak, sekuentziak ordenarik gabe filmatu ahal izateko.

Laburbilduz, makillatzeko eta ile-apainketako lanak (bi sail hauek elkar doaz beti) helburu dute aktoreari bilgarri beharrezkoa ematea gidoian idatzitako pertsonaian bihurtu dadin. Aktore batzuk bilgarri oso landua behar dute pertsonaiaren antz oso ezberdina dutelako, edo beste garai batekoak direlako. Eta beste batzuk lanketa gutxiago behar dute idatzitako pertsonaiaren antza ukaiteko. Beste batzuk ez dute ezer behar. Eta hori ere makillatze eta ile-apainketako erabakia da.

Makillatzea ezinbestekoa da benetako pertsonaiak eraikitzeke. Meryl Streep bezalako aktore bat ere ez luke Margaret Thatcher bilakatu eta antzezpen harrigarri horregatik Oscar sari bat irabazi ahalko bere kabuz, horregatik saria bere makillatzaileei, Marc Coulier eta J. Roy Helland-i, eskaini zien.

MICHEL GAZTAMBIDE



GIDOILARIA

Esaten da gidoilaria istorio-sortzaile frustratu bat dela. Frustratua omen da bere aldetik onena ematen saiatzen delako, maisutasunera hurbildu nahian, baina berak sortutakoari forma ematen dionak -alegia, zuzendariak- beste zerbaitetan bilakatzen du, eta inoiz ez da izaten izan zitekeen "maisulana".

Niri askotan aipatu eta galdetu didate hori. Nola sentitzen zara zure gidoia irudi bilakatuta ikusten duzunean? Lehenik eta behin, esaten dut "zure" hori nahiko erlatiboa dela. Kasu gehienetan gidoia gutxienez lau eskuren artean idazten da: gidoilariaren eta zuzendariaren eskuekin. Eta aurrez badakizu idazten ari zarena, gerora, beste zerbaitetan bilakatuko dela: filma. Gidoia, hortaz, iradokizun bat da, egitura bat, besterik ez.

Ondoren azaltzen dut oso idazketa espezifikoa dela. Kamera batentzat idazten da, eta, beraz, orainaldian egiten da (makinak kaptatu dezakeen denbora bakarrean) eta irudi sare bat idazten da -edo idatzi beharko litzateke-, hain zuzen, ikusle bati istorio, ideia edo sentipen bat (edo denak aldi berean) igortzeko. Nolabait, gidoia idazten da pertsonaitsu bati istorioa kontatuko litzaiokeen modu berean:

irudien xehetasunak adierazi behar dira, soinuak eta isiltasunak iradoki, pertsonaien ahotan elkarriketak jarri, haien erreakzioak proposatu, eta, horrekin guztiarekin, beste baten buruan istorio bat eraikitzen da. Hortaz, gidoi bat idaztea -alegia, filma eraikitzea aktoreek pertsonaiak interpretatu aurretik, lekuek kokapena izan aurretik, zuzendariak hitzak plano edo kamera-mugimendu bilakatu aurretik- asmo-adierazpen bat da, ñabardura edo aldaketa asko izan ditzakeena, ia beti zerbait hobe eskuratzeko. Funtsean, hitza irudi zehatz bat bilakatzen da.



Horrexegatik, esaten dudan hirugarren gauza honako hau da (galdera egiten duenari konbentzitzen diona edota, gutxienez, zalantza eragiten diona):

Ikus dezagun... Nik (guk) folio multzo bat entregatzen dut (dugu). Eta bueltan irudiak pantailan jasotzen ditut (ditugu). Argi dago nork irabazten duen.

Beraz, horixe izaten da gure sentipena gehienetan. Ezkur xume bat landatzen baldin badugu, haritzak itzala, edertasuna eta handitasuna itzultzen digu.

TELMO ESNAL



ZUZENDARIA ETA GIDOILARIA



Gogoratzen dut adinez gazte nintzenean, buruz gazte jarraitzen dut, garai hartako BUP eta COU ikasten ari nintzenean erabat galduta nengibilela. Nora ezean, jakin gabe zer egin neure buruarekin. Nire ahalegina norantz abiatu nahi nuen susmorik gabe. Banekien zer nahi ez nuen, baina ez zer nahi nuen. Ikasketak burutzear nire inguruko guztiak "argi" zeukaten zer egin, zer ikasi, zertara eman lanbide bizi. Ni berriz ez. Ez nindun ezerk erakartzen, ez behintzat lanbide ezagun horiek. Denbora luze

hartu zidan zirt edo zart egiteko erabaki hori. Baina, zorionez, azkenean izan nuen halako txispa bat eta irudi munduan murgiltzea nahi nuela erabaki nuen, neure kasa, inoren laguntzarik gabe.

Garai hartan euskal herrian ez zegoen nik nahi nuen hori non ikasi eta Bartzelonako RTVEko eskolara joan nintzen azterketa bat egitera eta noski ez ninduten hartu. Horrek ez ninduen atzeraka bota, kontrakoa baizik. Bilatzen ari nintzela, Gipuzkoan bertan zine eta bideo eskola bat jartzera zihoazela jakin nuen: Andoaingo Zine eta Bide Eskola. Hantxe aurkeztu nuen neure burua eta hantxe hasi nintzen, ni, zinearekin (Barrutik ikusten, noski) lehen harremanak hartzen. Lehen promozioan jardun nintzen, eta handik lanera.

Lehenik telebistan eta gero zineman. Esparru ezberdinetan aritu naiz gaur egun arte.

Ez naiz damutzen egindako bideaz, baina beti izan dut argi, garai hartan izan banu nolabaiteko laguntza, azkarrago bideratzeko aukera izango nukeela. Horregatik, Ikertzek egindako hainbat ekimenetan parte hartzeko prest agertu naiz beti. Ni bezelako asko egongo direlakoan "galduta" ikastetxe horietan.

Garai ederra da, nerabezaroa, gure gazteei gure lanbidea aurkezteko. Jakin dezatela zer dagoen irudi bakoitzaren atzean. Zer nolako lana dagoen irudi bakoitzean, zenbat jende lan egiten duen kamera atzekaldetan egi bihurtu dadin kontakizuna, zenbat lanbide desberdin dauden filma baten barruan... Eta jakin dezatela, bestaldetik ere, zer dagoen esanahi aldetik irudi baten atzean. Gaur egun, gure gazteak irudi bonbardaketa amaiezinean bizi dira. Gure gazteek jakin behar dute irudi bakoitzaren atzean norbait dagoela (gidoilari bat?). Eta norbait horrek zerbait bilatzen duela. Batzuetan zerbait saldu, besteetan emozionatu, besteetan engainatu edo manipulatu, besteetan...

Oso garrantzitsua deritzot Ikertzeren lana, ain urrun dagoen zine mundu hori gazteei gerturatu. Eta bide hortan beste pausu bat da Klaketa liburua.

Bejondeizuela eta eskerrik asko.

Telmo Esnal

TERESA MEDINA

ARGAZKILARITZA ZUZENDARIA ETA GIDOILARIA



Pertsonak betidanik izan du zinema lagun.

Leizeetan, aztarna arkeologikoekin batera, ikus daiteke zerbait kontatzeko eta horrek etorkizunean bizirauteko nahia.

Beraz, ez da soilik istorio bat kontatzea. Pertsonaren epizentrora joan eta haren bihotza ezagutzea da: beldurrak, jakin-minak, oroitzapenak eta, batik bat, nor garen eta nola erlazionatzen garen gure ingurunearekin.

Zinema egitea inoiz ez zait lan bat iruditu, pasio edo grina baizik. Mundu magiko hori, ilusio hori, amets kolektibo hori kapturatzea pribilegio bat iruditzen zait.

David Lean pertsonon askotariko nortasunez hitz egiten maisu zen eta irudiaren bidez egite zuen.

Arabiako Lawrence, nire ustez, film inizatikoak arima basamortu bat balitz bezala erakusten digu. Pertsona gutxi bizi daitezken eta uler dezaketen tokia.

Protagonistak ez du konkistatu nahi, herritar arabiarrek batu baizik.

Bere nahiek talka egiten dute kultura patriarkalarekin eta mundu mailan ezarrita dagoenarekin. Lawrencen

arima hautsi egiten da, ezinezkoari aurre egiteko gai izanda ere, pentsatzeko eta sentitzeko modu hori aldaezina dela ikustean.

Susan Streitfield zuzendariaren *Female Perversions* filmarekin ulertu nuen zinema eszenaratze bat baino zerbait gehiago dela.

Kamerak, argiak, denak hitz egiten du lengoaia sotil batean.

Zuzendari horrekin lan asko egin nuen filmaren prozesu guztian. Gure ikuspegiez hitz egin genuen, gure barne munduaz. Benetan biluztu genuen arima.

Joseph Campbell nire gida zen, eta metafora eta mitoen mundu bisuala sortzeko eraiki genuen sarearenak ziren gure ametsak.

Film aurrerakoia izan zen; lankidetzaren lan ederra.

Urte batzuetatik hona gidoiak lantzen ditut eta lan eder bezain zaila iruditzen ari zait.

Nire barne munduan murgildu, hizketan ari diren eta bere bizitza duten pertsonaia ezagutu. Zinez magikoa da.

Gidoiaren egitura, ordena eta behar bezala martxan jartzea, ezinbestekoa bestalde ikuslearen arreta geureganatzeko, heroi baten pareko lana da.

Ordainetan jakiten duzu antzinako zirkulu bat ixten ari zarela, izan ere, istorioak kontatzea gure zibilizazioaren eta pertsonaren oinarri da.



MIREN APERRIBAY



BANATZAILEA

Filma amaituta dagoenean, ahalik eta jende gehienari erakutsi nahi izaten diogu, mundu guztiak ikus dezala... Nola egin dezakegu hori?

Film baten banaketa, funtsean, hura kokatzea da. Errealizazio guztia bukatu bezain laster, estreinaldia lantzen dugu, marketina eta prentsa prestatu, publizitatea emateko eta, ondoren, ahalik eta leku gehienetan kokatzen dugu, publikoak ikus dezan.



Banaketa-lana has daiteke gidoia daukagun momentuan nahiz filma amaituta dagoenean. Komenigarria da banatzaile izango dena lehenbailehen proiektuan sartzea eta ekoizpenaren kokapenean lan egitea, ekoizleei aholkuak emanaz eta filmeko lantaldeari lagunduz, banaketarako bide onenak bilatzeko eta ahalik eta estreinaldi onena egiteko. Lehen estreinaldirako, filmarentzako egoki gerta daitekeen nazioarteko zinemaldi bat bilatzea garrantzitsua da. Horretaz gain, garrantzitsua da zinemaldi nazional batean estreinaldi on bat egitea ere, honako hauetan adibidez: DONOSTIA INTERNATIONAL FILM FESTIVAL, MALAGAKO ZINEMA JAIALDIA, SEVILLAKO nahiz GIJONEKO ZINEMA EUROPARRAREN JAIALDIAK.

Horrek laguntzen digu ondoren zinema aretoetan estreinaldia egitea eta beranduago, plataforma nahiz telebistetan.

Nire lehen klaketari dagokionez, banaketa-lanak lehen aldiz Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzendutako 80 egunean filmarekin egin nituen.

Moriarti produkzioen lehen fikziozko film luzea zen, eta baketan laguntzeko eta mundu guztiko jaialditan mugitzeko deitu zidaten. Hori zen gure erronka, ez

genekien ongi aterako ote zen, izan ere, nire lehen banaketa-lana zen eta haien lehen fikziozko filma.

Nazioarteko 100 zinemaldi baino gehiagotan aukeratua izan zen, besteak beste: EL CAIRO IFF, LONDON BFI, CHICAGO IFF... Bi emakume helduren arteko maitasun-istorioa zen, urte askoren buruan berriro ere topo egin zutenak, Donostian, euskaraz kontatuta... arrakasta izugarria izan zuen nazioarteko zirkuituan.

Horrek esan nahi du istorio batek gidoi eta errealizazio on bat izan behar dituela, baina, zalantzarik gabe, banaketa-estrategia on bat gabe ezinezkoa litzateke publikoari helaraztea. Eta garrantzitsuena, filmak egiten ari garela kontuan izanda, publikoak ikustea da.

Banaketa funtsezkoa da gure film gustukoena gure auzoko zineman, telebista kate batean edota plataforma batean ikusi ahal izateko.

Ez da garrantzitsua filmak aurrekontu txikia izatea ezta zein hizkuntzatan eginda dagoen ere, milioika pertsonaren bihotzetara iritsiko baita, eta horixe, hain zuzen, lortu nahi dugu filmen banaketarekin: kontatu nahi dugun eta zinemarekiko hainbeste maitasun jarrita duen istorio hori mundu guztiak ikusi ahal izatea.



ZINEMA IKASGELAN PROGRAMAN EGINDAKO FILM LABURRAK

2008-2021

***Nola bizi bizikidetzan
munduari zabalik***
2008
Atzegi

Ekogune pausoak
2010
Atzegi

Oroimenak
2013
Kutxa Gaztedi Kluba

Game Over
2015
DBH 4. mailako ikasleak
Ama Guadalupekoa Ikastetxea

Lapurreta gazteluan
2009
L.H. 3. mailako ikasleak
Belen Ikastetxea

Kobazulo misterioak
2011
Ikertze

Telmo
2014
DBH 4. mailako ikasleak
Ama Guadalupekoa Ikastetxea

Euria egiteari uzten dionean
2016
DBH 4. mailako ikasleak
Ama Guadalupekoa Ikastetxea

Aitona-amona zaratsak
2009
L.H. 3. mailako ikasleak
Belen Ikastetxea

Beldurrak gainditzen
2012
Kutxa Gaztedi Kluba

Danielaren egunerokoa
2014
DBH 3. mailako ikasleak
Ama Guadalupekoa Ikastetxea

Famaren prezioa
2016
Atzegi

Zomba
2010
L.H. 3. mailako ikasleak
Belen Ikastetxea

Super Ekogune
2012
Atzegi

Guk ere egin dezakegu
2014
Atzegi

Ama
2018
DBH 4. mailako ikasleak
Ama Guadalupekoa Ikastetxea

Gaztelu sorgindua
2010
L.H. 3. mailako ikasleak
Belen Ikastetxea

Ustekabeko bidaia
2013
Kutxa Gaztedi Kluba

Bi bihotz, sentimendu bat
2015
DBH 4. mailako ikasleak
Ama Guadalupekoa Ikastetxea



FILMOGRAFIA

Film zerrenda gomendagarria lehen eta bigarren hezkuntzarako.

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

1921	Mutikoa Charles Chaplin. AEB	1955	Pather Panchali (Etixerako bidea) Satjavit Ray. India	1969	Basati txikia François Truffaut. Frantzia
1925	Urrearen kimera Charles Chaplin. AEB	1955	Moonfleet-eko kontrabandistak Fritz Lang. AEB	1970	Ogia eta kalea Abbas Kiarostami, Iran (film laburra)
1926	Generaleko makinista Buster Keaton. AEB	1955	Globo gorria Albert Lamorisse. Frantzia	1973	Erlauntzaren izpiritua Victor Erice. Espainia
1931	Argiak hirian Charles Chaplin. AEB	1959	Laurehun kolpeak Francois Truffaut. Frantzia	1987	Non da nire lagunaren etxea? Abbas Kiarostami. Iran
1938	Laurel and Hardy (lodia eta argala) Film laburrak. AEB	1965	Haizea belatan Alexander Mackenrick. Britainia Handia	1995	Globo zuria Jafar Panahi. Iran
1942	Aniki-bobó Manoel de Oliveira. Portugal	1962	Urretxindorra hiltzea Robert Mulligan. AEB	1999	Ezta bat gutxiago ere Zhang Yimou. Txina
1950	Kim Indiakoa Victor Saville. AEB	1962	Botoien guda Yves Robert. Frantzia	2002	The Way Home Lee Jung-Hyang. Hego Korea
1952	Zurda zuria Albert Lamorisse. Frantzia	1962	Errugabeak Jack Cady. AEB	2011	Hugo Martin Scorsese. AEB
1953	Mr. Hulot-en oporrak Jaques Tati. Frantzia	1940	Edison gaztea Norman Taurog. AEB		



Film aukeraketa kalitate handiko film eta gaiak eskaintzeko egina dago.

Film "zaharrak" baina interesgarriak dira, zinemaren bizitzaren 70 urteko ibilbidea erakusten baitigute.

Ez dugu animaziozko nahiz 3D pelikularik sartu, liburu honetan ikasiko ez ditugun hainbat teknika erabiltzea beharrezko baita.

BIGARREN HEZKUNTZA

1935	Ana Karenina Clarence Brown. AEB	1956	Heriotza zigorra duen pertsona batek alde egin du Robert Bresson. Frantzia	1988	Paradisu zinema Giuseppe Tornatore. Italia
1936	Aitak arrazoï zuen Sacha Guitry. Frantzia	1956	Moby dick John Huston. AEB	1993	Mundu perfektu bat Clint Easwood. AEB
1936	Lord txikia David O. Selzniks. AEB	1956	Picassoren misterioa Henri-Georges Clouzot. Frantzia	1999	David Coperfield Peter Medak. Britainia Handia
1937	Kapitain ausartak Victor Fleming. AEB	1959	Rio Bravo Howard Hawks. AEB		
1939	Diligentzia John Ford. AEB	1960	Berarekin iritsi zen eskandalua Vicente Minelli. AEB		
1941	Mutikoen hiria Norman Taurog. AEB	1978	Udazkeneko sonata Ingmar Bergman. Suedia		
1945	Gaua hiltzean Robert Hammer. Erresuma Batua	1982	Passion Jean Luc Godard. Frantzia		
1948	Alemania 0 urtea Roberto Rossellini. Italia	1984	Udara bat aitonaren etxean Hou-Hsiao Hsien. Taiwan		

BIBLIOGRAFIA

- Aparici, R- García Matilla, A, (1998) **Lectura de Imágenes**.
Madril, Espainia, Ediciones de la Torre.
- Arnheim, R, (1996) **El cine como arte**. Bartzelona, Espainia, Paidós.
- Bazin, A, (2004) **¿Qué es el cine?**. Madril, Espainia, Rialp.
- Bergala, A, (2007) **La hipótesis del cine. Pequeño tratado de transmisión del cine en la escuela**. Bartzelona, Espainia, Laertes.
- Berger, J, (2002) **Modos de ver**. Bartzelona, Espainia, Gustavo Gili.
- Bosch, E (2012) **¿Quién educa a quién?**. Bartzelona, Espainia, Laertes.
- Casetti F. di Chio F. (2007) **Cómo analizar un film**. Bartzelona, Espainia. Paidós.
- Catel&Bocquet (2021) **Alice Guy**. Brusela, Belgika. Casterman.
- Cornelius H, (1995) **Tú ganas, Yo gano. Cómo resolver conflictos creativamente**.
Madril, Espainia, Gaia.
- Edgar, R- Marland, J. (2016) **El lenguaje cinematográfico**.
Badalona, Espainia, Parramón.
- Delgado J.A. Tausiet A. Ivars C. (2016) **El mundo del rodaje**.
Tarragona, Espainia. Altaria.
- Gómez, C. Urbizu, E. (2021) **La caja de madera**.
Madril, Espainia, Imprenta Dinámica.
- Greene, M, (2005) **Liberar la imaginación**. Bartzelona, Espainia, Graó.
- B. Rosenberg, M. (2013) **Comunicación no violenta**.
Buenos Aires, Argentina. Gran Aldea Editores.
- McKee, R, (2010) **El guion**. Bartzelona, Espainia, Alba.
- Sontag, S, (2005) **Sobre la fotografía**. Madril, Espainia Alfaguara.
- Truffaut, F, (2010) **El cine según Hitchcock**. Madril, Espainia, Alianza.

CECADI-KO IKASLEEK EGINDAKO TUTORIALAK

Planoak, Lumière minutuak, Alice Guy minutuak

Aniztasun funtzionala duten pertsonak ikus-entzunezkoen munduan ikasketak egiteko programa bat da CECADI.
2019-2020 promozioko ikasleek egin eta editatu zituzten liburu honetan eskaintzen ditugun tutorialak, ikasturte amaierako lan gisa.



AUTOREARI BURUZ

BLANCA ZARAGÜETA

Zinema profesionalean lan egin zuen 12 urtez honako zuzendari hauekin: Alain Tanner, Felipe Vega, Gerardo Herrero, Montxo Armendáriz, José Luis Rebollo, Mariano Ozores, Fernando Colomo, Ana Díez eta José Luis García Sánchez.

1994an eta 1996an ama izan zen.

2000 urtean Ikertze taldeko partaide bilakatu zen, irabazi asmorik gabeko kultur elkarte honetako kide, eta hezkuntza artistikoarekin, filosofia-rekin eta herritarren partaidetzarekin zerikusia zuten egitasmoak egiten zituzten.

Víctor Erice maisuaren eskutik ezagutu zuen **Ireki begiak** egitasmoa, UNEDekin lankidetzan Artelekun gauzatutako kurtso magistral batean.

Bi ikasturtetan zehar, programa etxean landu zuen, asteburuetan, bere seme Lucasen gelakoekin, Kira alabaren laguntza eta begirada zorrotzarekin eta Jose Luis Gaston lagunaren zehaztasunez beteriko aktekin.

Ikertzen sortu zuen eta 20 urtez forma eman zion **Zinema Ikasgelan** programari, Zuriñe Adrada elkarteko sortzailearen eta Leire de Miguel lankidearen konfiantza eta laguntzari esker.

2015ean sortu zuen **Begiradak zinemaldia** talde-lanean Zuriñe Adrada, Leire de Miguel, Xabier Ortiz de Urbina, Asier Olaizola, Maddi Orcajo eta Iñigo Arísteguiarekin. Ikasgeletan egindako film laburren nazioarteko jaialdi bat zen, eta ikasleen lanak pantaila handian eta soinu onarekin ikusteko aukera eskaintzen zuen. Hainbat ikastetxe zinemako profesionalekin elkarriketan aritzen dira filmak ikusi ondoren.

2016an, Ikertze taldearekin batera (Leire de Miguel, Nuria Fernández eta Raquel Romero), **Hemen gerta daiteke, komunikazioa SM** film laburra egin zuen, ekipo tekniko eta artistikoaren partaide erdiak zinemako profesionalak ziren eta beste erdiak, aniztasun funtzionala duten pertsonak.

2019an CECADI (aniztasun funtzionaldun pertsonentzako ikus-entzunezko gaitasunerako zentroa) sortu zuen Raquel Romerorekin batera; aniztasun funtzionala zuten pertsonak prestatzen zituzten eta enplegura bideratu, ikus-entzunezkoen industrian.

Zuzendari gisa, hezkuntzarako hainbat film labur eta dokumental egin ditu.

Egun (2022) Fundación Zaragüeta Zulaica Fundazioa sortu du, baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzako gizarte-ekintzailatza egitasmoak egiteko.



ESKERRIK ASKO

Nire alaba Kira eta nire seme Lucasi.

Zuriñe Adrada, Leire de Miguel, Raquel Romero eta Nuria Fernández
lankideei.

Nire lehen ikasleei: Itziar Abad, Dilara Ayan, Saioa Cervo, Leire Eizagirre,
Nerea Eizagirre, Sara Etxaniz, Maider Izagirre, Jon Jauregi, Maialen Nafarrate,
Markel Ostolaza, Aitor Otxoa de Alda eta Lucas Zaragüetari, posible zela
erakutsi zidatelako.

Elena Zabala, Alicia Diaz de Apraiz, Itsaso Izagirre, Lurdes Gonzalez eta Iñaki
Leunda irakasleei.

José Luis Gastóni.

Lidia Montesino, Iñigo Aristegui, Iñaki Camacho, Laszlo Hace, Michel
Gaztambide, Aizpea Goenaga, Olatz Beobide, Ana Escribano, Santi Ugalde,
Jon Santamaria, Josune Lasa, Fernando Vera, Xabier Ortiz de Urbina, Atzegi,
Paco Sagarzazu, Adrià Marquès eta urte hauetan zehar **Zinema Ikasgelan**
posible egin duzuen pertsonai, eta beren tutorialekin argitalpen honen edukia
osatzen duten pertsona guztiei.



THE END

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideetza, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



Kultura
eskola

IKERTZE